



ANTONIO ZAVALA

KUBA'KO GERRA

KUBA'KO GERRA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(161)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

KUBA'KO
GERRA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1983

Azalean, Habana'ko katedrala. (*Nueva Geografía Universal, Montaner y Somín, Editores, Barcelona, 1878, Tomo II*).

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzalle: Onena - Lasarte

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-104-3

Depósito Legal: S. S. 27/83

Enero 1983

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Altxa-aldia	13
Bertso Berriyak: «Españiya'ko mutil gaztiak daramazkite soldadu...»	17
Bertso Berriyak Irundar gazte batek jarriyak	23
Bertso Berriak reserbistak jarriak	29
Bertso Berriak: «Zenbait neskatxa gazte Donostiya'kok biyotzak triste dauzkate...»	37
Agur anaiari	43
Habana'tik	45
Bertso Berriak Kuba'ra dijuazenai jarriak	47
«Kuba'ko gerra degu...»	51
Amarruak eta bobasketak	55
Aurrera!	61
Euskaldunak Kuba'n	65
Orañ da ordua	67
Kuba'ra	69
Oroitza Kuba'n gudan dabilzan españatarrari	73
Arratiar soldadu baten Kubako amesa	77
Atozte, malkuak, begiyetara!	81
Ongi etorriya Polavieja aundiyari	85
Mackinley eta euskal liberalkeriya	87
Guamo'ko umantari	91
¡Viva España!	93
Ama ta semia	97
Pakea!	101
Sorterriyagatik!	103
Ipar-Amerika	105
Bertso Berriyak yanketarraren eskarmentugarri jarriak	117
Kantatxoak	125
Gerra ta karidadea	127
Romero Robledo	129
Bertso Berriak gerraren gañian jarriyak	131
Bertso Berriak, arren erruki zaitezte guzaz	137
On Felipe Dugiols jaunari	141
Ongi etorri bat Dugiols jaunari	143
Ongi etorri Tolosa'ra	147
Filipiñasti	153
On Felipe Dugiols'i oroitza	155
Ill da!	157
Au pena... ill da Dugiols!!	161

ITZAURREA

Kuba'ko gerra eman diogu izena liburu oni, gaia ere ala baita. Bañan oar batzuk egin bearrean gaude.

Kuba'koaz ez-ezik, Filipinetako gerraz ere mintatzuko gera. Izan ere, naiz-eta ugarte oiek alkarrengandik millaka kilometrora egon, gerra bakarra izan zan, bai España'rentzat eta bai Ipar-Amerika'rentzat. Gerra bakarra, bañan bi frentetan burruka egin zana.

Bañan *Kuba eta Filipinetako gerra*, izenburu luzeegia egiten da, bai liburuaren azalerako eta bai izketarako ere. Orregatik, erriak, Filipinetako izena alde bat utzirik, Kuba'ko gerra esan oi du beti soil-soillik, bai erderaz eta bai euskeraz ere, naiz-eta gerra ori atzentzen ari dan eta gero ta gutxiago aitatzten dan.

Kuba'ko gerra orrek oso alderdi berezia izan zuan Bidasoa'z ego aldeko euskaldunentzat. Bera izan baitzan, oker ez bagaude beintzat, fueroak galdu eta emengo mutillak soldaduzkara joaten asi ondorengo lendabiziko gerra.

Beste gerra bat ere izan zan Kuba'n, Yara'ko deia edo oiwarekin (*El grito de Yara*) asi zana 1868-X-10'an, eta Zanjón'eko pakearekin (*Paz de Zanjón*) bukatu, 1878-II-10'an. Gerra ontan ere ibilli ziran euskaldunak. Bañan artean fueroak zutik zeuden eta emengo diputazioak, beren kontura, milla bat gizon bialdu zituzten. Bertso batzuk ere badira; bañan ez errikoiak. Gerra ontaz ez degu gaur itzegingo.

Gure asmoa ez da gerraren kondaira idaztea. Ez baita ori *Auspoa*'ren egitekoa. Orduko bertsoak eskeñi nai ditugu, komeni dan tokian komeni diran argibideak emanaz, kondaira-liburuetatik-eta artuta, bertsoak obeto uler ditezten.

Bertso-batzuk, garai artako kanta-paperetatik artu ditugu. Eta bestek, orduko egunkari ta aldizkarietatik: *La Voz de Guipúzcoa*, *Euskal-Erria*, *El Cántabro*, *Euskalzale*...

Bigarren iturri ontako bertsoak, orduko olerkari edo biursariak jarriak dira: Sánchez Irure, Emeterio Arrese, Ramos Azkarate, Elías Gorostidi, Felipe Arrese, Jeronimo Elizegi, Jose Marino Arrieta, Pepe Artola, Ramon Gelbentzu...

Gizon oiek bertsolari jator-jatorrak ez baziran ere, erriarentzat oso jator idazten zituzten beren bertsoak. Orregatik, oien bertsoak ere liburu ontan sartu bearrak ziran. Izan ere, bertsolarien eta olerkarien arteko desberdintasunak gaur baño askoz ere txikiagoak ziran garai artan.

Gerra artako zenbait bertso eta aitamen agertu izan dira, orain baño len ere, *Auspoa*'n. Ezin asiko gera oiek berriz ematen. Bañan nun diran esan egingo degu, irakurleak ikusi nai baiditu.

Auspoa'ren 79-80-81 zenbakian, 53-59 orri-aldeetan, Kuba'n besteren ordeaz ibili eta andik *enbaliyo* etorritako mutilzar baten bizitza ematen da, Lexo bertsolariak jarritako sail batean.

82 zenbakian, 96-102 orri-aldeetan, emezortzi bertso gerra ari buruz, Azkoiti'ko Juan Maria Zubizarreta bertsolariak jarriak.

Kuba'ko gerraren aitamenak Txirritak ere egiten ditu: *Auspoa* 103-104, 84-88 orri-aldeetan.

Kaskazuri bertsolariak ere badu bertso-sail bat gerra artaz: *Auspoa* 114, 86-92 orri-aldeetan.

Andik etorrita naiko ezagunak izango ziran eta bertso asko jarriko zituzten bi bertsolari, gerra artan ibilli ziran. Oietako bat, Mendaro Txirristaka: *Auspoa* 120-121-122, 25-43 orri-aldeetan; eta bestea, Zaldibi'ko Patxi Erauskin bertsolaria, Sanjurjo'ren agindupean ibillitakoa eta geroztik ere alkarrekin artu-emanak izandakoa: *Auspoa* 130, 20-26 eta 73-78 orri aldeetan.

Auspoa'ren 119'an, 69 orri-aldean, Bekoetxia bertsolariaren seme bat Kuba'ko gerrara nola joan zan esaten zaigu.

Auspoa'ren 139'garrenean, 25-36 orri-aldeetako bertso eta argibideetan, Filipinetako ge-

rran izandako mutil baten ibillerak eta azken errukarriak kontatzen dira.

Pedro Maria Otaño'k ere badu bertso-sail bat, gerra ura zala-ta, *Kubako gure anaiai* izenarekin. Bañan aren bertso-libururako utziko degu.

Antonio Arzak olerkariak ere, Kuba'ko gerra aitatzten du bere poemetan. Bañan onen aitametak ere, obe izango da beraren libururako uztea.

Bearbada, bertso eta aitamen geiago ere izango da *Auspoa*'ren liburuetan gerra ari buruz. Bat edo beste atzendu bazaigu eta aitatu gabe utzi badegu, barka dezaigula, arren, irakurleak.

Gañontzean, beste zer esanik ez degu. Bertsolariak, askotan gertatu danez, kronistak eta periodistak ere izan dira. Orregatik, bertso auen bitartez, gerra ura gure aitoñ-amonak nola ikusi zuten ikusiko degu.

ALTXA-ALDIA

Paz de Zanjón firmatu ondoren, bi politika-alderdi sortu ziran Kuba'n. Bata liberalak osatzen zuten, geienak bertan jaioak; eta bestea Españi-zaleak, geienak España'n jaioak. Denbora asko gabe, liberal alderdia autonomi-zalea bihurtu zan.

Bitartean, Ipar-Amerika'k lagunduta, gerra berriro piztuzeko alegiak egiten zituzten an eta emen Kalixto García, José Maceo, Guillermo Moncada, Leokadio Bonatxea, Linbano Sánchez, Frantzisko Varona eta abarrek. Alperrik ordea. Txinpartak atera bai, bañan sasia ezin piztu. Ekiñaldi oiei, guerra txikia, *gerra chiquita* alegia, deitzen diote kondairalariak.

Altxa-aldia bideratu, tajutu eta jantzi zuana, Jose Martí izan zan. Idazle, olerkari eta izlari iaioa bera.

1892 urtean, Kuba'ko errepublika berriaren araudia eta oñarriak prestatu zituan, eta aien berri ematen asi zan Nueva York'en, Santo Domingo'n, Costa Rica'n eta abar.

1893'eko Garagarrillaren 5'an, España'ko gobernuak Kuba'ko autonomia onartzea nai

izan zuan Antonio Maura'k; bañan etzuan lortu.

1895 urteko asieran, Abarzuza ministroak arazo ori berrituta, Kuba'ri zerbait autonomi eman zitzaion; Bañan Maura'k nai zuana baño eskasagoa eta murrizagoa.

Urte bereko otsaillaren 24'an, bertara bildu eta Baire'ko oiua eman zuten, *el grito de Baire* alegia, Kuba Españi'rengandik berezi nai zutenak. Askatasunaren deia egin eta gerra asi.

Kuba'ko sortaldean indar aundia artu zuan altxa-aldi onek.

Apirillaren 1'an, Jose eta Antonio Maceo, alkarren anaiak, itxasoz etorri eta Kuba'n sartu ziran. Eta apirillaren 11'an, Jose Martí eta Máximo Gómez.

Apirillaren 16'an, Martínez Campos jenerala Kuba'ra iritxi zan, Españi'tik indar berriak ekarriaz.

Maiatzaren 19'an, Dos Ríos'en, burruka-aldi batean, Jose Martí il zan.

Kuba'tarrak laguntzalle indartsua eta oparoa zuten: Ipar-Amerika. Armak-eta noiznai bialtzen zizkien. Baporez ekarri eta edozein itxas-bazterretan legorreratu.

Kuba ugartea luze eta estua baita, zenbait *trocha*, erreten moduko zera batzuk antolatu ziztuzten españitarrak itxas-bazter batetik besteraño, eta erreten oietan an eta emen soldadu-mordoak eta gazteluak jarri, kubatarren joan-etorriak mozteko.

Kubatarrak, tokiaren berri obeto jakiñik eta *guerra de guerrillas* deritzana egiñez, oso etsai gogorak ziran.

Gerra ura zer zan, onela adierazten du *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak, 1895-I-6'an:

«Los insurrectos —dice un periódico— van todos a caballo, llevan poca o ninguna impedimenta y así hacen marchas de 70 y 80 kilómetros sin gran fatiga. Los soldados que les persiguen van cargados con seis y a veces con ocho días de ración y con la cartuchería de campaña, son muy jóvenes (de 19 a 23 años), están por aclimatar, comen tarde, poco y mal, y en tales condiciones una jornada de 30 kilómetros es para ellos fatigosísima. Son una infantería cargada persiguiendo a una infantería montada; un galápago corriendo tras una liebre».

Bañan ala ere jipoi ederrik artu zuten kubatarrak ere. Gure iritzirako, oso gerra luzea izango zan ura, ipar-amerikarrak sartu izan ez balira. Ortan mesede egin zuten...

Bañan bearbada, españitarrak gerra artan izan zuten etsairik gogorrena, baso eta lurralde bero aietako gaitz eta eritasun kutsakorrak izan ziran. Itxura danez, gazte etorri berri aiek minberagoak izaki eta errezago erortzen ziran. Mutil geiago il omen ziran, gaitz oiek mendea ar-tuta, balak jota baño.

Martínez Campos'ek, bazterrak ezin pake-tuz, bere kargua utzi egin zuan.

Aren ordain, Weyler jenerala bialdu zuten. 1896'eko otsaillaren 10'an iritxi zan Habana'ra.

Onek, esku gogorra erabilliz, garaipen garrantzitsuak lortu zituan; bañan ala ere sua indarrean beti.

1897'eko agoztuaren 8'an, Santa Ageda'n, Angiolillo'k iru tiroz il zuan Españi'ko gobernuaren buru zana, Antonio Cánovas del Castillo jauna.

Gobernu berria etorri zan orduan, Sagasta buru zala, eta onek Weyler kendu eta Blanco jenerala bialdu zuan Kuba'ra, 1897'eko Urriaren 30'an.

1898'eko urteberriarekin, Kuba'ko lenengo autonomi-gobernua osatu zan. Bañan beren sorterria askatu nairik armak eskutan zebiltzanak, etzuten gobernu berri ori aintzat artu eta gerrari segi egin zioten.

Andikan laister, otsaillaren 15'an, Habana'ko kaiean zegoan *Maine* izeneko ipar-amerikar gerra-itxasontzia lertu egin zan; eta, ori zala-ta, Ipar-Amerika gerran sartu.

BERTSO BERRIYAK

1. España'ko mutil gaztiak
daramazkite soldadu,
guraso askok gauza orrekin
sentimentua izango du:
entrañetako semiarekin
ezin dutela agindu;
ori pentsatuta biyotz gogorra
egin liteke bigundu.

2. Edade ori semeari eman
Jaungoikuak dakin bezela,
gero zer pena amarentzako
soldadu biar dutela;
bestela berriz sei milla errial
dirutan paga dezala,
ez dun gajuak ezin kubritu
asko duenak bezela.

3. Bizarra zuri, kokotza lori
Gobiernuko geienak,
bazekitek oiek nola libratu
seme aberatsarenak:
serbiziyua egin dezela
dirurikan ez dubenak;
berriz ere kalbo jarriko dituk
orrela pensatzen dutenak.

4. Kuba'n dabillen gerra ori're (1)
ez da gure meserian,
kanpo aundinak an dituenak
daude etxian pakian;
Viva España eta Patria
ibilli naiz mingañian,
bañan atzera egiten dute
aurrera biar danian.

5. Eiztari onak ondo pintatze'ik
erbi-zakur onarekin,
eiza eroso jarritzen dik duben
abillidadiarekin;
beste oinbeste gertatutzen dek
zenbait ofizialekin,
soldaduak lana egin biarko ditek
Kuba'n insurrektuarekin.

(1) Bertso-paperak: *oride*.

6. Lana eginda dute gogua
ala ere geio egiteko,
baleuzkateke nagusi fiñak
laister gerra bukatzeko;
insurrektuak dabiltzan lekuan
ez lirake ibilliko,
soldaduak bañan geio ezpalitz
iñor aprobetxatuko.

7. Biyotza penaz josiya daukat,
malkua darit begitik,
insurrektuak uzten dituzten
gauza itxusiyangatik;
gure soldadu balientiak,
zerbait sufritubagatik,
beti aurrera egiten dute (2)
Maximo Gómez'engatik.

8. Guraso askok negar egiten du
baita neska gaztiak e,
badira berriz aur txikiyakin
gelditu diran andriak e;
zenbait familik biziyo tako
dubena baleukateke,
sei milla errial zikiñengatik
libratuko lituzteke.

(2) Bertso-paperak: *aurre*.

9. Ordubete're ezin du pasa
gustora orrelakuak:
esposatuak senarragatik,
semeagatik gurasuak;
nobiya berriz lo eziñ egiñik
pasarikan gau osuak,
amaika muxu penazko artze'ik
mutillan erretratuak.
10. Guraso onak semientzako
duben amoriyorian,
mundu onetan ez liteke jαιο
beste biyotzetatikan;
esanagatik «nere biziya
utziko det zugatikan»,
ori barrendik datorkiyonik
bat ezta milletatikan.
11. Amoriyuan egondua naiz
ni're neskazar batekin,
ezta milagro bat erotzia
oien gezur ta saltsekin;
erretrato bat eskatu ziran
eduki zezan berekin,
muxuka laister puskatu zuben
ezpañetako babakin.

12. Jarri aurrian eta esan ziran
besuak zabalduzkan:
«Zer egingo nuke nik au bezela
zu ibiltziagatikan?»
Erantzun niyon: «Sorgiñik ezta
neskazar aňekorikan,
demoniyuak eman zaitzala
nere aldemenetikan».

13. Mutil gaztiak, eskarmentatu
ejenplo txiki onekin,
erretratua puskatu zunak
zer egingo zun nerekin?
Etzaitezela ezkondu beintzat
erdipurdukuarekin,
izatezkero urtiak aňe
milla duro dituanakin.

Bertso-papera, *Imp. Baroja San Sebastián*
moldiztegian argitara emana, eta etxe ortan ber-
tan, Joakin Muñoz-Baroja jauna zanaren esku-
tik jaso.

Bertsolaria nor dan, ez da iñon ageri.

Bigarren bertsoak dionez, dirutan sei milla
erreal pagatzen zuana soldaduzkatik libre zan.
Legea ala zan garai artan. Aberatsak, kanpo

aundinak an —Kuba'n alegia— zituztenak, diru ori paga zezaketen. Eta, irugarren bertsoak dienez, «serbiziyua egin dezela dirurikan ez dubenak». Bidegabekeri nabarmena iduritzen zaio ori bertsolariari. Bai guri ere.

Zazpigarren bertsoan aitatzen dan Maximo Gomez ori, *insurrektuen* edo Kuba askatu nai zutenen buruzagi bat zan, len ere esan degunez.

Antonio Arrue jauna zanari entzun izan nioenez, *insurrecto* itz ori modan ibilli omen zan garai batean Asteasu aldean. Iraiñik gogorrenetako bat omen zan iñori esateko.

BERTSO BERRIYAK
IRUNDAR GAZTE BATEK JARRIYAK

1. Milla zortzireun larogei eta
urtiak amabost ditu,
bertso berri bi jartzera nua,
gusto duenak aditu;
motiborikan asko badaukat
esplikatuko banitu,
kulparik ez duen kristaba zertan (1)
postura orretan zatitu?

2. Uste ez nuen gizon batzuek
egin dirate bisita:
«Ala, mutillak! Prepara ari
guraso zarrak utzita».
Soldaduzkara eraman naute
tunika zar bat jantzita,
zer esperantza ama gaixuak
daukan semiak azita!

(1) Bertso-paperak: *kristabak zertan*.

3. Aita ta ama zarrak daukazkit,
anaia serbiziyan,
neroni ere gizon faltsuak
artu naute traiziyuan;
beste batzuek kunplitu faltan
beren obligaziyan,
pobre gaixuak paga dezala
aberatsan negoziyan.

4. Enbustekeriz jantzirikan
etorri zaizkit etxera:
«Aiskiria, ez beldurrik artu,
gerrara juango etzera».
Bañon aguro etorri zaizkit
jauna oiek bisitatzera:
«Artu mutxila eta arma mauser,
segi Kuba'ko partera».

5. Kariño fiñez guraso zarrak
naukaten seme maitia,
soldado libre atera eta
gaudezen pozez betia;
Gobierno onek jarri dizkigu
oso ordena fuertiak,
libre atera eta eramateko
zertako dira suertiak?

6. Soldado libre gertatu nitzan,
ai orduko nere poza,
andregaiari bisita egiñaz
alegraturik biotza!
Esposatzia pentsatzen nuen,
ez naiz esatia lotsa,
penaz negarrez beti or dago
orain nere *buena moza*.
7. Amaika bider esaten ziran:
«Biyotz nereko galaia,
beldurak nago tentaziyuan
asiko dala etsaia».
Aguro aski artu ziraten
nun bizi nitzan usaia,
gizon oriyek ikusi eta
ni ez neguen lasaia.
8. Uzta-illaren bosta izan zan,
gure orduko tristura,
naiz ez gogorik izan juan biar
agintzen zuten lekura;
ume desgrazi aundikuak gu
jaio giñaden mundura,
Gipuzkoa'tik bota gaituzte
Zaragoza'ko puntura.

9. Zaragoza'ra allegatuta
beriala desafiyua,
arrantxo gutxi janaz mutillak
ikasi instruziyua;
goizian labetako jaikita
ura persekuziyua,
deskuiduantzat makillazuak
erakustalle fiyua.
10. Arrantxua neurtuta degu
gu denak kinto gaztiak,
maleziz ondo jantzita daudez
aurretik juanak bestiak;
azkenian erabasten diguzte
gerekin ditugun trastiak,
kulparik gabe pagatu biar,
au bizimodu tristia!
11. Orain ikusi biar ditugu
España'ko parajiak,
ez dira txit eskasak izandu,
jaunak, gure korajiak;
kulparik gabe eragiñazi
biar diguzten birajiak,
gu baño aurreragoko franko (2)
badaukazkite lajiak.

(2) Bertso-paperak: *aurrerako*.

12. Donostiya'ra presentatzeko
artu genduen ordena,
etxetik partitzen ikusi eta
negarrez famili dana;
gañera bakarrik lajatua
nere biyotzeko dama,
bestiak aisa pasatzen zaizkit,
arek ematen dit pena.
13. Ura tristura artu genduen
Irun'dik abiatzian,
Uzta-illaren bosta zan ura,
atera giñan goizian;
trena utsegin azi ziguten,
Donostiya'ra kotxian,
kanta ta bulla etorri giñan
naiz pena izan biotzian.
14. Donostiya'tik Zaragoza'ra,
Zaragoza'tik Kuba'ra,
libre aterata modu orretan
garabiltzanak gu gera;
ez nuen uste nere denboran
allegatzia onera,
mutillak bai itxusiya dela
moru beltz oien keskara (*sic*).

15. Moru beltza oien kara itxusiyak
ez nau asko apuratzen,
terraje txarrian gaitz gaiztuak
geienak miñez erortzen;
baldiñ bizirik Gipuzkoa'ra
emendik banaiz etortzen,
zer umoria pasako duten
bertso berriyak kantatzen!

16. Amaseigarren bertsuarekiñ
orra nere despedida,
zer notiziyak eldu diraren
egon zaitezte begira;
dibertsiyo bat pasatutzeko
emen badago segira,
bost zentimuan paper bakoitza,
jaunak, galesti ez dira.

Bertso-papera, *Imp. E. Pérez* moldiztegian argitaratua, Errenteri'ko Jertrudis Arrieta zanaren eskutik jaso.

Bertso-papera, *Imp. Baroja San Sebastián* moldiztegian argitaratua, bertako Joakin Muñoz-Baroja jauna zanaren eskutik eskutik.

Alkarren artean aldaketarik ez dute bi bertso-paper auk.

BERTSO BERRIAK RESERBISTAK JARRIAK

1. Milla zortzireun larogei eta
amabostgarren urtian,
bertso berriak jartzera nua
euskara eder batian;
bigarren txandan artu gaituzte
demoniñuan mendian,
pena guziyak aztuko dira
noizbait egunen batian.

2. Agoztuaren bederatziko
presentatzeko ordena,
lendabiziko erririk erri
au da biali zutena;
agintari bat dala mediyo
guretzat ainbeste pena,
nere ustian infernurako
ezta izango azkena.

3. Burgos'eraño etorri giñan
oso onradamentian,
len eramantako plaza-faltiak
ornitutzeko ustian;
ta orain gerok artu gaituzte
beste guziyen aurrian;
bidaji ori etzait aztuko
bizia dedan artian.

4. Burgos'en utzi pasiak eta
gero Madrid'ara etorri,
falsuak tranpan nola zebiltzan
laister geniyon igarri;
euskaldun danak juntatu eta
esan diogu elkarri:
«Ea, mutillak, koraje egin,
ez obeditu iñori».

5. Madrid'ara juañ giñadeneko
jendia pronto zeguan,
kuartelera sartu giñuzten
lapur batzuen moduan;
gero andikan atera gera
berak nai duten orduan,
musika juaz estaziyora
urrikaltzeko moduan.

6. Kuarteletik atera eta
estaziyora artian,
musikak asko konsolatutzen
etzituztenak bazian;
jendia franko begira bazan
kafe guziyak betian,
pena aundiya gelditua da
Españiya'ko partian.

7. Madrid'tik irten eta urrena
sartu gerade Sevilla'n,
korajiaren faltikan etzan
erreserbisten kuadrillan;
kulparik gabe traidore aundiyak
engañatu ta juañ giñan,
esan biar det zer posturetari
an ere ibilli giñan.

8. Sevilla'tikan ateratzeko
eman zituzten trajiak,
lenago ere uste zan bezin
azkar etzian lajiak;
soldaduzk'onek jarritzen ditu
famiyietan nastiak,
negarra franko egiten dute
gure guraso tristiak.

9. Sevilla'tikan atera giñan
illaren ogei t'iruan,
akonpañatu giñuzten askok
gustagarrizko moduan;
estaziyuan ere pausua
nola emanik etzeguan,
biyotz gogorra zutenak ere
biguntzen ziran orduan.
10. Modu onetan egin genduben
Sevilla'tikan partira,
gutxiyeneko ogei t'amar milla
persona bazan begira;
esaten zuten: «Biba españolak!
—gugana ziran kupira—.
Kuba aldeko lanak eginta
laister etorriko dira».
11. Agoztuaren ogei ta labian
giñan Cadiz'ko murallian,
enbarkatzeko juanak goizeko
zazpi t'erdiyak aldian;
sartu gera *Isla de Luzón* deitzen
zaion bapore batian,
bost pazientzi sufritu degu
andik atera artian.

12. Bi milla gizon eta geiago
guaz bapore batian,
egunez gusto aundiyik gabe
eta okerrago gabian;
arkakosuak bezela danak
bata bestian gañian,
iya ituan irteten gera
kamañetatik goizian.
13. Bapore ontan ikusten degu
makiña bat komeriya,
orden estubak dauzkigu baña
bastimentuba urriya;
kopa aguardienta errial bana,
pezetan librako ogiya,
begiyen bistan oiek egiten
digute lapurreriya (1).
14. Bapore onek deskalabro bat
izandu digu birian,
Agoztuaren ogei ta zortziyan
San Agustin egunian:
makina ausi ta gelditu zaigu
goizeko iruak aldian,
kezkarik asko iduki degu
ura konpondu artian.

(1) Bertso-paperak: *digute lapur erriyan.*

15. Makina nunbait konpondu eta
abiyatu zan aurrera,
desio baño lenago Puerto
Rico'n sartu ez gera;
gau bat an pasa eta urrengo
goizian giñan atera,
Cien Fuegos deitzen zitzaion
Kuba'ko erri batera.
16. Noizbait erri artan sartu gerade
Habana'ko ziudadian,
denak geuden desiatuak
allegatzeko lurrian;
lau egun pasa trenan ditugu
eta amazapi urian,
dudarik ez du, korritu degu
makiñatxo bat birian.
17. Baporetikan atera eta
formatu gera murallian,
fusillan puntan baionetakiñ,
oso kolera fuertian;
españolaren alde ziranak
an ere izango zian,
amaika biba egin digute
kuartelera artian.

18. Erri (y) onetan egin degu oso
sarrera ikaragarria,
zeinbait persona kale-iskiñetan
bazan begira jarria;
ikusi ginduztenian ain jende
ederra eta larria,
esaten zuten: «Zuentzako diña
eztue Habana guzia».

14 Gogotik ondo portatu zaigu
Habana'ko Aiuntamentua:
ogaina errial eman digute
eta naiko tabakua;
zer esanikan ez degu oientzat,
oso ongi portatu dia (2),
aurrera ere Jainko Zerukua
ez al da egongo aztua.

20. Orra ogei bertso egiaz jarri
euskara eder batian,
milla zortziregun larogei eta
amabostgarren urtian;
zer engañu gertatu zaigun (3)
erreserbistan artian,
gusto duenak ikasi beza
Gipuzkua'ko partian.

(2) Puntu au ez da besteakin ongi ezkontzen. *Oso ongi portatua* edo olako zerbait bearko luke lerro onek.

(3) Bertso-paperak: *zaigu*.

Bertso-papera, *Imp. Baroja San Sebastián* moldiztegia argitara emana.

Paper ori, bi tokitan arkitu degu: Baroja'ean, bertako Joakin Muñoz-Baroja zanaren eskutik, eta Errenteria'n, Jertrudis Arrieta zanaren eskutik.

Bigarren bertsoan, agintari baten kontra itzegiten du bertsolariak. Agintari ori zein ote zan ez dakigu.

Irugarrenean dionez, «len eramantako plaza-faltiak ornituzteko ustian» zijoazen; bañan berak ere Kuba'ra joan bear.

Gañontzean, emendik arako biajea nola egin zuten kontatzen du: Burgos, Madrid, Sevilla, Cienfuegos, Habana. Bañan andik aurrerako berririk ez du ematen. Orregatik, Habana'ra iritxi bezin laister jarritako bertsoak izango dira. Eskutitz gisa alegia, ongi allegatuak dirala emengo adiskideai adieraztearren.

BERTSO BERRIAK

1. Zenbait neskatxa gazte Donostiya'kok
biyotzak triste dauzkate,
isla Cuba'ko gerra gogorak
diralako mediante;
bi rejimentu emen zeudenak
ara eraman dizkate,
eta dituzten tristura danak
ortatik sortu zaizkate.

2. Aiek emendi alde egin da
geroko egun oietan,
etzan izango atsegiñ ona
neskatxa oier etxetan:
biyotza triste, kopeta illun,
negarra begi biyetan,
pentsamentua zutelakuan
jarririk galtza gorritan.

3. Sicilia ta Valencia'ko
errejimentu ederrak,
neskatxa oien pena eman du
zubek aldendu biarrak;
ez du kulparik iñork izandu
baizikan Kuba'ko gerrak,
eta zer pena duten badaki
bakarrik Jainkuak berak.

4. Aspaldi ontan ez dakit nola
pasatu duten denbora,
ibiltze eder aiek bost aldiz
juan zaizkiyote gogora,
lengo udaran zeuzkatenak
pasiatzeko gustora;
uniformia ez dutenakin
berriz ez juan nai iñora.

5. Bulebarrian illunarekin
bost aldiz dira ibilli,
jira ta bira galoidunarik
iñon ote dan ageri;
berak nai duten denbora dana
pasa aiekin ederki,
gero etxera juanta esan
gezur aundi bat amari.

6. «Ama, kalia egonduba naiz
lagun batekin izketan,
aurki dira-ta juango ote geran
Lezo'ra Santa Krutzetan».
Sinistaturik konforme ama
alaba orren itzetan,
eta biarba egonduba da
soldaduakiñ izketan.

7. Arrats batian esaten zion
batek bestiari ala:
«Gure gustoko ibiltze danak
uste diñat juan dirala».
Bestiak berriz erantzun zion:
«Kalma artzan nik bezela,
zergatik berriz kinto berriyak
emen ditun beriala.

8. Ez diñat uste izango danik
Sicilia'n ta Valencia'n,
gu ikusiko gaituenikan
gerra ura bukatzian;
asko etxera ta beste zenbait
lurren azpira iltzian,
ai, zer poza nik izango detan
beste kintuak etortzian!

9. Naiz etorri zikiñak eta
jantzitza arropa zarrez,
aurki jarriko ditun jefe bat
bezela garbitasunez;
gorputza jantzi uniformeaz ta
eskuak guante ederrez,
alako bati itz egiteko
egon litezken txit pozez.
10. Galtzak gorriyak, kapote urdiña
ta rosa beren buruan (1),
bigote ederra ezpañian da
iru bat galoi besuan;
neri geiago gustatze'zatan
jantzirik ezten munduan,
alakuaren onduan eziñ
aspertu milla orduan».

Bertso-papera, *Impr. Baroja San Sebastian*
moldiztegi argitaratua, bertako Joakin Mu-
ñoz-Baroja jauna zanaren eskutik jaso.

Kuba'ko gerra dala-ta, «Sicilia ta Valencia-
'ko errejimentu ederrak» Donostia'tik ara bial-
tzen dituzte, eta neskatzak triste...

Errejimentu oien aitamenak, bein baño geia-
gotan egiten ditu *La Voz de Guipúzcoa* egunka-
riak. Guk arkitu ditugunak, onako auek dira:

(1) *Rosa* —erderaz *ros*—, garai artako militarren burukoa
zan.

1895-XI-21'an, onela dio: «*Hoy el batallón expedicionario de Sicilia y mañana el de Valencia salen para la isla de Cuba...*».

1895-XII-29'an: «*Hoy salen para la isla de Cuba, a donde van a cubrir las bajas habidas... cuatrocientos ocho reclutas de los regimientos de Valencia y Sicilia...*».

Soldadu oietako bat, erdalduna, ura ere bertso-jartzallea izaki. Onela dio *La Voz de Guipúzcoa*'k, 1896-I-4'an:

«*Entre los soldados que marcharon el domingo por la noche, iba uno del batallón de Sicilia, llamado Blas G. Romea, que antes de embarcarse escribió algunas composiciones poéticas*».

Bertso oietako batzuk bostekoak dira, *quintillas*; besteak, berriz, laukoak, *cuartetos*. Auek, bada ere, emen agertzea merezi dutela uste degu:

*Al partir para la guerra
un beso me dio mi madre,
y aunque la fiebre me ahogaba,
¡qué frío sentí tan grande!*

*Huellas en tu rostro, madre,
mi despedida dejó;
si en tu rostro dejó huellas,
¡qué haría en tu corazón!*

*Una sombra de mujer
por doquiera me persigue;
eres tú, madre, y ¡aún hay
quien dice que no la mire!*

*Al contemplar tu retrato
se agita mi corazón...
¡Qué abrazo, madre del alma,
nos daríamos los dos!*

1896-IX-4'an, ostera errejimentu oien aita-
mena. Agidanean, berriz ere bazijoazen beste
soldadu batzuk...

Oraingo ontan, azken agurra aundikiro egin
zitzaien. Bezperan, igandearekin ain zuzen, eta
egualdi bikañarekin, meza nagusia kanpoan, al-
darea Okendo'ren irudiaren urbil xamarrean
zala; eta meza-emalle, Gazteiz'ko obispoa, Pie-
rola jauna. Toki berezi batean, erregiña ta bera-
ren familia. Ondoren, egunari zegokion bazka-
ria...

Bigaramon-goizean, *Sicilia*'koak trena artu.
Eta urrengo egunean, *Valencia*'koak. Miranda-
'raño lenengo; andik Bilbo'ra eta urrena San-
tander'a, emen *León XIII* itxas-ontzian sartze-
ko.

Urte bereko azaroaren 18'an, *Sicilia*'ko bes-
te mutil batzuk abiatu ziran Donosti'tik Kuba-
'ra...

AGUR ANAIARI

1. Etsai gaizto batzubek
dirala meriyo,
egin bearrik gaude
zuberi ariyo;
gloriya zubena da,
ni ontan naiz fiyo;
gure Ama maitea
bear da gora iyo.

2. Donostiya dago gaur
guztiz penatuba,
alako maitasuna
daduka artuba (1)
zubengana, ta indarrez
barrendik sortuba,
dago au aztutzeko
biyotz erituba.

(1) *La Voz de Guipúzcoa*'k: dauka.

3. Agur, anai maiteak
fedez betiak,
zuaztenak sutara,
naiz izan bestiak
etsai gaizto traidore
Manigua'n gordiak...
Argiro sutzen dira
español nobliak.

4. Gogor egiñ etsaiari
arturik tartian,
ez utzi, ez, iñola
danak ill artian;
jarri zazute Kuba
betiko pakian,
eta *biba España*
zubekin batian.

Jose M. Arrieta
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1895-XI-21)

HABANA'TIK

1. Etsirik onezkero
egongo zerate,
ez dizutelako, ez,
izkribi ezere;
ez penatu, amatxo,
emen ondo gaude,
fusilla bizkarrian
egun, gau ta aste.

2. Gogoratutzen gera
maiz toki danetan,
zuben oroitzak gugan
ondo gorderikan;
lengo batian ere
giñanian sutan,
bizirotu abiyatu
eta ke tartean.

3. Ez nituen aditzen
sutunparen otsak,
zergatik barrendikan
ziran nei biotzak
oroitu guztiz gogoz
gautza txit gozuak:
Euskal erri mendiko
oroitz maitetsuak.

Inazio Albizu
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1895-XII-5)

BERTSO BERRIAK
KUBA'RA DIJUAZENAI JARRIAK

1. Kuba'ko gerra degu
txarren-txarrenian,
gure anai maitiak
an dabiltz pelian;
egia jarri nai det,
gañera errazoian,
emen papel onetan
jarririk argian.

2. Begira, gure ama,
gañera anaia:
boluntario guaz
eitera pelia;
akabatuko dute
gurekin gerria,
Weylerrek daduka
abilidadia.

3. Egun milla ta piku
dira euskaldunekin,
geiago jarriko dira
oin berriz gurekin;
peleatuko degu
asko moruekin,
ta ez degu bildurrik
insurretuekin.

4. España'n gizon batzuk
dirala medio,
anai askok egin du
gugandik adio;
iltzen ez badituzte
gu oiekin fio,
etorriko gerare
eiñ arren adio.

5. Adios, aita ta ama
ta aiskire maitia,
ez negarrikan egin
gatozen artian;
etorriko gerare
alakon batian,
triunfua ere bai
gurekin batian.

6. Fusil mauserra eta
munizio ona,
aiekin apurtzeko
moro kasta dana;
jakin bear lenbizi
nola eiten dan lana,
ez Martinez jaun orrek
leno ein dubena.
7. Martinez Campos onuntza,
bestia aruntza,
moruekin jartzera
aurrera gorputza;
fusilen puntan dute
jarria zorrotza,
odol gorriz eiteko
aien kutis beltza.
8. Zortzigarren onekin
eiten det despedida,
geiago esan gabe
onek asko dira;
iltzen ez bagaituz
eingo degu jira,
da urdura artian,
gure Euskal-Errira.

Bertso-papera, *Vergaran: J.López-en moldizteguian* argitara emana, Oxford'eko *Bodleian Library*'tik.

Bigarren bertsoak dionez, Kuba'ko gerrara boluntario dijoan batek jarritako bertsoak dira.

Bigarren bertso orrek, Weyler jenerala aita-tzen du. Zazpigarrenak, berriz, Martínez Campos jenerala: au onuntza, España'ra alegia, eta bestea, Weyler, aruntza, Kuba'ra. Arek utzi zuanean, onek artu baitzuan Kuba'ko agintea.

Weyler ori, 1896'eko otsaillaren 10'an iritxi zan Habana'ra. Orduko bertsoak, beraz.

Martínez Campos'ek bigun-fama zuan; Weyler'ek, berriz, gogor-fama. Bertsolaria onen alde dago, seigarren bertsoak aditzera ematen duanez.

«KUBA'KO GERRA DEGU...»

1. Kuba'ko gerra degu
txarren-txarrenian,
gure anai maitiak
an dabiltz pelian.
Zer pasatzen ote den
Kuba alderdian,
esperantzetan gaude
beti notizian,
operazio edo
atake guzian.

2. Kuba'ra juana bada
soldadua ugari,
begiratzen det bañan
ez dira ageri.
Abisatzen diyote
aita ta amari:
«Ondo atera nediñ
errezatu neri,
Pater Noster bat edo
iru Abe Mari».

3. A zer alibiyua
guraso tristiak!
Ez dauzkate aztuak
bakoitzak beriak,
lagunduko digula
Jaungoiko guriak;
nik banituzke zure
abillidadiak,
laister eingo nituzke
Kuba'ko pakiak.

4. Maximo eta Maceo
dabiltz unituta,
nola sostenitze'idan
nago arrituta;
makiñatxo bat ill da
asko erituta,
gerra onek orlakuak
ekartzen ditu-ta,
ni beintzat oso nago
desengañatuta.

5. Lengan ametsetan
nazu egondua,
burura etorrita
Kuba'ko kontua,
Maceo il zalako
oso sinistua;
ez da errez galdutzen
kasta gogortua,
gañera ori bezela
larrian oitua.

Bost bertso auk, Irun'en jaio eta Plazentzia'n bizi izan zan Andres Ezenarro «Urzelai» zanaren bildumatik ditugu.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman ere arkitu ditugu; bañan Andres Ezenarro orrek berak bialdu zituan, 1932 urtean.

Guk uste, bost bertso baño geiago izango ziran. Bertso-sail bat alegia, kanta-paperetan zabalduko zana.

Bañan gañontzekoak aztu eta auk bakarrik gogoan gorde Ezenarro orrek. Eta papera ez da iñon ere agertu.

Lenengo bertsoaren asiera eta aurreko sailaren lenengo bertsoaren asiera, berdin-berdinak dira.

Kopiatzallaren bat izan da, beraz. Nor orde?

Bost bertso auk, aurrekoak baño obeak dira, dudarik gabe. Eta kopiatze lan ori, eskasagoa danak geiago danari egiten baitio, aurreko bertsoen egilleak bertso auen egileari kopiatuko zion, guk uste beintzat.

Laugarren bertsoak, Maximo eta Maceo aitatzen dizkigu. Bata, Maximo Gómez zeritzan; eta bi Maceo ziran, Jose eta Antonio, anaiak. Kubatarren buruzagi, irurak ere.

Anai oietako bat, Antonio, gerra artan izan, 1896'eko Abenduaren 7'an, Punta Brava'ko burruka-aldian.

Bostgarren bertsoak dionez, bertsolariak amets egin du Maceo il dala. Bañan ametsa amets, kasta gogortua, eta are geiago larrean oitua, galtzen oso zalla dalako.

Antonio Maceo ori il baño lenagoko bertsoak ditugu, beraz. Bi anai baziran ere, bat illa izanik, ori ala zala bertsolariak esan bearra baitzeukan.

AMARRUAK ETA BOBASKETAK (1)
(*Orra yabirun yabirun'en doñuban*)

1. Españiya daukagu
txit errukarriya,
dituben lur-apurrak
galdu ditu iya;
madarikagarritzko
liberakeriya,
zu zera gauza oien
etsai galgarriya.

2. Argiyen eunkiya (2)
deitu gaudenari!
Eta illunpekoak...
antziñakoairi;
ori sinistatubaz
daudenak ugari,
dira begi zabalik
ametsetan ari.

(1) *Astucias y fatuidades. (El Cántabro'ren oarra).*

(2) *Siglo de las luces. (Id.).*

3. Errege bidezkoak
zutenian aintzen,
Españiya ziguten
lur berriz jantzitzen;
eta orain daudenak
larru-gorritutzen.
A zer argitasuna
duten erakusten!

4. Trenian pasa ziran
lengo egun batez
mutillak Habana'ra
algaraz ta farrez;
tartian juanak dira
batzubek negarrez,
eskatzen zutelarik:
Ura karidadez.

5. Tren-bidera irten zan
gizon bat apaña,
lan asko... egin arren
du gorputz liraña;
aoa zabaldu ta
jasorik mingaña,
biyotzetik... deitutzen
zun: «*¡Viva España!*»

6. Besteren umiakin
gerra egitia,
gauza motelarentzat
ona da *gatz-txia*...
Ori deitzia bañan
ez al zun obia
aiekin biraltzia
beraren semia...?
7. Borondatezko (3) asko
juan zan gerratian,
ikusi ordurako
karlistak mendian;
sort-erritasun (4) franko
orain mingañian,
zertan daduzkatzute
semiak etxian?
8. Bilguman (5) badauzkagu
gizon *liberalak*...
erriyaren polsatik
geitutzeko *pagak*,
naiz beren mende dauden
langille argalak
biraldu, edo beintzat
gutxitu jornalak.

(3) *Voluntarios*. (*El Cántabro*'ren oarra).

(4) *Patriotismo*. (*Id.*).

(5) *En el Ayuntamiento*. (*Id.*).

9. Batez ere orretan
gure alkatia,
esan dirate dala
osoro trebia;
bear bañan geiago
pagatzen *gatz txia*,
ez beretzat baluke
izango kaltia.

10. Sesiyorikan bada
kalian gertatzen,
«Aguazillak nun dira?»
dakigu galdetzen;
zerbait nunbaitetikan
badute ostutzen,
serenuak lapurrik
ez dute gelditzen.

11. Oiek egin oi duten
lan guzti-guztia,
gizon ordi daudenak
persegitutzia;
aiek obe lukete
albait laguntzia,
ez kulparikan gabe
karzelan sartzia.

12. Alaz guztiyaz ere
grazi ugariyak,
oriyen karguba dun
buru-nagusiyak;
ez dakigu zergatik
ditun mereziyak...
bototan...irabazten
seiari zazpiyak.

Eme-arrak.

Bertso auek, Tolosa'ko *El Cántabro* aldizkariak argitaratu zituan, 1896'eko Azaroaren 1'an.

Bertsoen egillea ez dakigu, ziur esateko, nor zan.

Bañan bearbada Ramos Azkarate izango da, aldizkari ortako bertsorik geienak berarenak baitira, eta izen-orde asko erabiltzen baitzitian.

Bertso auei itzal nabarmen xamarra arkitzen diegu.

Olako une latzetan, alderdikeri guziak alde batera utzi egin bear dira, eta danak alkarrengana bildu.

Eme-arrak dalako orrek ez du olakorik egiten. Eta, zori txarrez, etzan bakarra izan. Beste alderdietakoak ere berdintsu egin baitzuten.

Adibidez, gero ikusiko degunez, errepublika-zaleak; gerra ori monarkiaren aurka itzegiteko aitzeki eta bide izan baizuten.

Bañan beste alderdi on eta eredugarria ere erakusten digute karlisten eta errepublika-zaleen bertso-sail auek: garai artako euskaldunak, bai kolore batekoak eta bai bestekoak, beren oponio eta iritziak zabaltzeko, bakoitzak bere politika egiteko alegia, euskera erabiltzen zutela...

AURRERA!

1. Zer uste dute moro zar oiek:
española garaitzia,
gure kopeta beren indarrez
umill goiberatutzia?
Mutur zapalak, ez dakizute
zer dan emen jaiotzia,
seme leialak dakin bezela
amarengatik illtzia.

2. Alper-alperrik falsokeriaz
gerran zabilta zu, Gomez,
iberotarren ume jatorrik
ez dezu garaituko, ez;
leno litzake errezagoa
zerua biurtzia auspez,
basamortuan (1) dabiltzan oiek
goitutzia baño legez.

(1) *Manigua*. (Egillearen oarra).

3. Itxas arunztik daukatelako
salkindariak (2) indarra,
eguzki gañez jarri nai dute
argi gabeko izarra;
laxter zerate opoz-ipurdi
korrika talderi txarra,
biotz argala lotsaz beterik
erakutsiyaz bizkarra.
4. Sendogarriya eman dizute
ingelestarren anaiak,
zeren daduzkan zaleturikan
ezkur gozoa jan-naiak;
leoi-marruak zutatu ditu
Españ-gudari ernaiak,
eta baijoaz purrukatzera
katamotzari erraiak (3).
5. Agur, mendiyak! Agur, ibarrak!
Agur, bazter gereitsuak!
Usai gozoa banaturikan
egon beti loretsuak.
Kuba'ra goaz Euskal-Erriko
seme leial t'agitzuak,
Amatxo, tira besarkera bat,
zabaldu bitza besuak.

(2) *Traidores*. (Egillearen oarra).

(3) *Entrañas*. (Egillearen oarra).

6. Goazen, mutillak, tximistan oñez
odoi beltza urratzera,
Maceo'tarrak beti-betiko
itxasopian sartzera;
tuntan (4) soñura irrintz egiñaz
jaso dezagun bandera,
orruaz daude bazter guziyak,
guazen, mutillak, aurrera!!

Tolosa, 5 Marzo 1896
Emeterio Arrese

Bertso-papera, *Tolosa: Imp. de la Viuda é Hijos de P. Gurruchaga* moldiztegian argitara emana, Oxford'ko *Bodleyan Library*'n.

La Voz de Guipúzcoa egunkarian, 1896'ko Martxoaren 15'an. *Euskal-Erria*, XXXIV, 1896.

Onek, bertsoen aurretikan, argibide jakingarrri au ematen du:

«*Mañana saldrá la estudiantina a postular para los soldados heridos y familias de los fallecidos en Cuba. He aquí los versos de la estudiantina*».

Emeterio Arrese, tolosarra, (1869-1954), olerkari ugaria izan zan.

Ain zuzen, bertso auek jarri eta urte asko gabe, bera ere Kuba'ra iritxiko zan.

(4) *Cuerno de guerra*. (Egillearen oarra).

Bigarren bertsoan aitatzten dan Gomez ori, Maximo izenez, eta seigarrenean aitatzten diran Maceo'tarrak, Jose eta Antonio anaiak, Kuba'n España'ren aurka altxa ziranen buruzagieta-koak ziran, len ere esan degunez.

Laugarren bertsoan, ipar-amerikarrak «ezkur gozoa jan-naiak» zaleturik daudela esaten da. Urrengo beste zenbait bertso-sailletan, ageri-agerian txerritzat tratatzen dira. Itxuskeri ori nundik datorren, *Marqués de Lozoya*'k argituko digu, bere *Historia de España*'n:

«Para un español medio de 1890, el pueblo norteamericano no era sino un conjunto de mercaderes enriquecidos, sobre todo con las industrias que se derivan del cerdo —extendiendo a todo el país los famosos mataderos industriales de Chicago—. No se reconocía a los «yanquis» (Yankees) virtud alguna, ni aun las que habían hecho posible su fabulosa prosperidad.

En la prensa, sobre todo en la de tendencia liberal, se agotaba el ingenio de los periodistas en burlas sangrientas. Los caricaturistas de «Blanco y Negro» publicaban en cada número dibujos humorísticos en que el cerdo tenía papel principal: el «Tío Sam» con un cerdo en cada brazo; desfiles de cerdos con la bandera de las barras y las estrellas en el lomo. Estos mercaderes no podían ser buenos soldados y eran incapaces de enfrentarse con los descendientes de los vencedores de Pavía, de Otumba y de Lepanto...».

EUSKALDUNAK KUBA'N

Pozturik daukat, jaunak,
gaur nere biyotza,
len egondu bada ere
penetan ta otza.
Noraño iritxi da
Gernika'ren otsa!
Orrela kantatzeko
ez dirade lotsa,
euskal seme fiñ aiek
kantatzeko gabez,
oroitzen diralako
erriyaz ta jabez.
Sancti Spiritus'en
Gernika kantatu,
ta jendeak txaloka
berriro eskatu
omen zuten; ala det
atzo irakurri,
La Voz'ek zuben aste-
lenian ekarri...

Nola ez nitzan bada
biotzez poztuko,
ikusirik fedea
ez dala oztuko?
Gerra azturik, zubek
euskara erakusten...!
Aurrera, bai, aurrera,
aber dan zabaltzen,
gallorturik daudenak
diraden lotsatzen,
utzi diyotelako
izkuntzari galtzen.

Jose M. Arrieta
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1896-IV-2)

ORAIÑ DA ORDUA

1. Ontzi eder bat oraiñ
guk emen egiñik,
españolak gerala
erakutsi nairik,
beñere ez da izan
aukera oberik,
ez det uste anaiak
gauz au ukatzerik.

2. Baldin gertatzen bada
gerra etortzia,
len degunaz gañera
ala ere bestia,
aurretikan txit on da
ernai egotia
eta ontzi eder bat
azkar egitia.

3. Beltzak eta zuriyak
oso arrotuak,
Abana'ko semiak
nola bestekuak,
Nobayork'kuak ere
daude erotuak,
españolaren kontra
danak berotuak.

4. Gu berriz nola geran
danetan jarriyak,
laister eingo ditugu
jaun oien aldiyak;
aurrian arturikan
beltz eta zuriyak,
badaki gaur zer egiñ
ongi Española'k.

Kaietano Sánchez Irure
(*Euskal-Erria* aldizkaritik, XXXIX, 1896)

KUBA'RA!

1. Monarkitarren gobernu txarrak
gauz onik eziñ ekarri,
ixtillu ederrak jarri diozka,
oraiñ ere erriyari:
amen ondotik semea eraman,
kendu senarra andreari,
errukimenik ez diyo artzen
aien ume tristeari.

2. Gobernu txarrez aspertu dira
Kuba'ko gure anaiak,
zergatik arki diraden illun
lengo paraje alaiak;
ez dituzte nai aiek sufritu
emengo zitalkeriyak,
ta altxa dira defenditzera
bear diran lege garbiyak.

3. Autonomiya eskatzen dute,
ta au da eskamen prestuba,
nork bere etxia gobernatzia
ez al da gauza justuba?
Urte askuan sufritu dute
lepoan zepo estuba...
Onian eziñ logratu dana
logratzen da odoleztuba.

4. Gerra gogorra ekarri dute
gubernatzalle txatxuak,
semea kendu ama zarrari,
senar gabe andre gajuak,
aitari deika zokorik-zoko
ume txiki gizaxuak...
Obek dirade monarkitarrak
jarritako ixtilluak!

5. Jakiña dago zer izango dan
gerra onen bukaera:
geienak ill ta Kuba'n gelditu,
gutxi biurtu etxera.
Monarkitarrak dauden artian
orra gure izaera...
Republikak, bai, ondo izatia
ekarriko du onera!

6. Saia gaitezen bada guziyak
lenbailen au ekartzera,
berialaxen egin biagu
jatorrezkuak bagera;
bukatu zagun beti-betiko
monarkiyen izaera,
ipiñirikan tontor altuan
Igualdadeko bandera.

7. Modu onetan beti izango da
gure Españiyan pakia,
bai eta ere seguratuba
gure ondo izatia;
alkarturikan zar eta gazte,
biyotzeko Ama maitia,
zure semiak autsiko dute
lotuta zauzkan katia.

Elias Gorostidi

Bertso auek, Errenteri'ko Enrike Elizetxea
zanaren bilduman arkitu ditugu, egunkari-pus-
ka batean.

La Voz de Guipúzcoa izango da seguru aski;
bañan periodiko ori aztertzerakoan, bertso
auek pasa egingo zitzaizkidan, egunik apuntatu
gabe.

OROITZA
KUBA'N GUDAN DABILTZAN
ESPAÑATARRARI

1. Sorterriyak (1) bularra
emanik aurrari,
magalian laztanka
goxatuaz ongi,
sasoyikan onena
osaturik oni,
Kuba'rako eskatu
diyote amari,
eta borondatez du
eman amak ori.

2. Guda txar bat dalako
semeak baturik,
dijoaz bentzutzero
etxiak utzirik,
sorterri eta ama
aurren laztandurik,
dierriari (2) agur
gozo bat egiñik,
Jaunaren esperantzan
biyotza jarririk.

(1) *Patria*. (Egillearen oarra).

(2) *Nación*. (Egillearen oarra).

3. Fedia zimendutzat
arturik aurrena,
lur maitean pentsatzen
dutela urrena,
osatuko dute prest
amaren ordena,
garaiturik bertako
jende zital dena,
jaso dezaten gero
pozezko omena.

4. Española beti da
noblea eta fiña,
orain artean iñork
bentzutu eziña;
badiruri jaiotzez
gudarako egiña,
bada onek artzian
barrendikan griña,
ill artian egingo
du fiñ alegiña.

5. Españolik ez dute
iñoiz menderatu,
milla bider naiz eta
gogotik saiatu;
baizik au beti denen
gañez da altxatu,
eta omen aundiyak
beti etxeratu,
betiko dezan gero
erriyak gozatu.

6. Orain ere emengo
seme joan diranak,
alde batera utzirik
naigabe ta penak,
onoretsu ibilko
baitira an denak,
amagatik lanean
suturik barrenak,
deituaz: «Bizi bitez
gure lege onak!»

7. Ama gaxua emen
ez baitago lasai,
besoak zabaldurik
bere semien zai;
bañan laister andikan
etorko dira, bai,
oinperaturik legez
makiña bat etsai,
guda garaiturikan
sorterrira alai.

8. Orduan zer igortzi
ta laztan gozoak,
zabaldurik benetan
biyotz ta besoak,
semeari emango
diyozkan gaixoak,
ordaintzeko an eman
dituben pausoak,
ibilli, naigabe ta
neke penosoak.

9. Bitartean Jaunari
guztiyok erregu,
biyotz-biyotzetikan
egingo diyogu.
Berak goitikan guri
lagunduko digu,
esperantzeta bada
egon bear degu,
gero pozaren jabe
egin gaitean gu.

Bertso auek Donostia'ko Pepe Artola'renak dira. Oso bertso-jartzalle ugaria izan zan. Aren bertso-liburu bat argitaratuta gaude: *Auspoa*, 4. Bañan zenbat olako liburu beteko lirake, beraren bertso guziak bilduta? Biltze-lan ori egiteko orain beintzat astirik ez baitegu, bertso auek emen argitaratzen ditugu.

Euskal-Erria aldizkarian agertu ziran, 1896'an. Baita *Unión Vascongada* aldizkarian ere, urte berean.

Mondragoi'ko olerki-sariketan aldeera ta berrogei ta amar pezetako saria irabazi zuten, eta Diputazioak bere kontura argitaratu omen zituan.

ARRATIAR SOLDADU BATEN KUBAKO AMESA

1. Egun danetan oi dan legetxe
illunkerea zan eldu;
ta eguzkia mendi-ostean
egin zan txito estaldu;
mantu loratsu urdin bat gabak
zeruan eban zabaldu,
gure tronpetak erretrete
jo ta zirean isildu.
2. Milla soldadu gitxienetik
gengozan zelai batean,
oso nekauta azazkau (1) nairik
danok etxunda lurrean:
batzuk bildurrez areriorik
ete ebillen urrean,
arri bat legez ni barriz lotan
nengoan bedar tartean.

(1) *Azazku, atsagon edo atsedon: descansar. (Euskalzale-
ren oarra).*

3. Gorputza loak loturik neukan,
burua bear egiten,
Makaztui'n neure etxean uste
neban nintzala aurkitzen;
uste neban nik lengo ardiak
banenbillela zainduten,
soiñu joteko marmitak barriz
tanbor eustala serbitzen.

4. Uste neban nik nekusazala
lengo atx eta mendiak,
eta poztuten nintzan gizenik
ikusitean ardiak;
alegeretzen ninduen oso
irrintza baten burdiak,
ebiltzalako gora ta bera
iratan zoli guztiak.

5. Uda goiena zan ta geunkazan
galantak arto-soloak,
eurai begira aita ta ama
egozan kokolotuak;
ni etortea gerratik euken
loteriatzat gaisuak,
o! baiña laster amesa bota
eragin eustan sustuak.

6. Esne esnetan neragoiala
alako ames dontsuan,
dianearen soiñu garratzak
sarturik biotz barruan,
damuz gomutau eragin eustan
Kuban ni zelan nengoan,
eta ez gure ardiak zaintzen
Altungo larra gozoan.

Felipe Arrese ta Beitia

Bertso auek *Euskaltzale* astekarian argitaratu ziran, 1897'ko Iraillaren 23'an. Etziran Arrese'ren *Ama Euskeriaren liburu* deritzaion bilduman jaso (Bilbo, 1900); ez-eta *Olerkiak* deritzaionean (Zornotza, 1933).

ATOZTE, MALKUAK, BEGIYETARA!
(On Antonio Arzak jaunari donkitua)

1. Donostiya'ko uri ontatik
ez biziro apartian,
bi etxe txuri alkarren aurrez
daude zelaitxo batian;
pake santuan bizitu dira
biyetan oraiñ artian...
Kristabak negar egiñ lezake
zer pasa dan jakitian!

2. Baserri txuri bi aietako
guraso maitagarriyak
seme banakin bizitzen ziran
ederturikan zelayak;
lan geiegiyak minberatubak
zituzten abek gerriyak,
baña laguntzik etzun ukatzen
seme maitien sasoyak.

3. Bi gazte aiek, izan leikien
sasoyik ederrenian,
ta gurasuak arkiturikan
abetxen biarrenian,
kendu dizkate; ta, eramanik
orren aparte urian,
negarrez daude guraso aiek,
faltarik aldamenian...!

4. «Non dago gure jaiotz-erriya?»
oraiñ an daude esanaz;
ta begi aiek bustitzen dira
lartan gozo bat emanaz...
Bi biyotz aiek purrukaturik
naigabiaz eta penaz,
oroitutzian baserri artan
semiaren zai daudenaz!

5. Lau illabete izango dira
gazte aiek an daudela,
Españiaren mesedientzat
ixuri naian odola...
Ta gurasuak negarrez lertzen!
Malko dariyo... ai nola...!
Beste mundura laister dijuaz
eziñ bizirik iñola.

6. Semiaren zai, penaz beterik,
guraso abek il dira!...
(Oroitutzian negarra neri
etorritzen zait begira!)
Kuba ortatik bi seme aiek
egiten badute jira,
zori gaitzian sartuko dira
utsa dagon baserrira...!

Ramon Gelbenzu eta Iribar (1)

Euskal-Erria aldizkaritik, 36'garren ale-
tik, 1897 urtea.

(1) *Euskaldun Fedea*'koa. (*Euskal-Erria* aldizkariaren oar-
ra. Ala zeritzan Donosti'ko garai artako kultura-alkarte
bat).

ONGI ETORRIYA POLAVIEJA AUNDIYARI

1. Ongi etorri, gudari bikaiñ,
kelmen aundiko gizona,
ongi etorri ona izan da
erriyak egin dizuna,
dakiyelako gauza aundiya
dala an egin dezuna
Españiyaren amoriyuaz,
naiz txoll galdu osasuna.

2. Etorrer'ori pozkiro aundiz
Euskal-Erriyak du artzen;
txoritxuak gaur kanta ta kanta
arkitzen dira zoratzen.
Azkenerako pizti gaxuak
nola duten ezagutzen,
fintasunian lana eginda
bat nola dan.

3. Zergatikan gu emen jaiuak
 ez gera orain poztuko?
 Nola degu guk *Polavieja*
 biyotz gurian aztuko?
 Aren eskua gaur edo bigar
 pozik degu estutuko,
 t'aren baliyo aundiyarekin
 denak gera nastutuko.
4. Zer zoriona gaurtik aurrera
 dagon beretzat munduan!
 Nor ez da noiznai pozik jardungo
 gudatzen bere onduan?
 Ai, beste asko bagenduzka guk
 gizon orretxen moduan!...
 Bañan gaur askok ez daki ondo
 borondatia non duan...

Ramón Gelbentzu
San Sebastián, Mayo 16, 1897
(La Voz de Guipúzcoa, 1897-V-19)

Polavieja ori (1838-1914), Camilo García de Polavieja y del Castillo zeritzan. Militar-lanak, Afrika'n, karlisten aurka, Kuba'n eta Filipinetan erabilli zituan. Aren alde, oso militar ona zala; aurka, Rizal afusillatu arazi zuala. Bertsoak diotenez, gaixotu eta Españi'ra itzuli zan.

MACKINLEY (1)
ETA EUSKAL LIBERALKERIYA

1. Eman diozka libertadeak
Moret'ek Habanatarrai (2),
Españiya txit ondatutzeko
armetan altxa ziranai;
bañan *basati* (3) infernukuak
ez dituztela artu nai
diye esaten, eskeñitzera
joaten diraden guziyai.
2. Alferrik dabil *Canalejas* bat
gastatzen diru-putzuba,
dirudiyela Heraldo baten
guzizko jabe *santuba*;
lenago bañon gorago oraiñ
daukan *Maximok* buruba
gisan daduka begiratzeko
nai badu... kanposantuba.

(1) Ipar-Amerika'ko lendakaria.

(2) Segismundo Moret *Ministro de Ultramar* zalarik, autonomia eman zitzaien Kuba eta Puerto Rico'ri.

(3) *Salvajes*. (*El Cántabro*'ren oarra).

3. Giza-erriya kixkaldu dute
 bai ere ango jendeak,
 ikatz biurtu azitzeraño
 koitadu doakabeak,
 ta arboletan urkaturikan
 Patriyan adiskideak;
 ta al dakigu al diran bizi
 ango soldadu gureak?
4. Weyler andikan ekarri eta
 Blanco pixti bat birali,
 orra zer duben Moret *maletak*
 Españiyantzat irauli;
 orain kontentu dagon edo ez
 galde Mackinley jaunari,
txerri utsakin bildurra sartzen
 diyoten *txerrizaiari*.
5. Itzak legunak ditubelarik
 obrak dituben samiñak,
 garbiro asko kantatu digu
 gure etsaian mingañak;
 sartu dizkigu *koipe*... tartean
 biyotzeraño agiñak,
 esateakin Moret'en lanak
 dirala guziro fiñak.

6. Nolatan ez du gora altxako
español masoneriya,
txerriyentzako bada Habana
ganbela bizigarriya?
Bañan luzaro bizitzen bada
euskal liberalkeriya,
ikusi bear izango dira
laister ixtillu gorriya (4).

7. Argatik bildu omen ziraden
ostegunian Tolosa'n
larogei eta bost bat laguntxo
bazkaltzen fueroen plazan;
noski Don Segismundo maleta
Madril'dik etorri bazan,
elefante zar zuriyarekin
ederki dantzatuko zan.

8. Bañan Don Karlos ta Karlosenak
omen zituzten dantzatu,
beste etsairik bazutenikan
etziran nunbait oatu;
Kuba aldera papera saltzen
ez baziraden nekatu...
nai eta nai ez, Moret *argiya*
bear zuten an zatitu.

(4) Gramatikaz *gorriyak* bearko luke emen. Bañan *El Cántabro*'n dagoan bezelaxe utzi degu.

9. Aurreragoko lanik bazuten
Moret'en kontubak baño,
iñoiz iñungo bazkarietan
pasa ez dana gaurdaño,
sermoian ari zan potzolo bat
negarrez asitzeraño!!
Zer gertatzen zan kanpotar denak
osoro arritzeraño...!

10. Ziyon Irundar liberal batek
eta guziro polliki:
*«Oien kasino edo etxea
oraindik ziok urruti;
burniya bear lendabizi ta...
emen ez diat nik senti,
erri ontako jauntxo oriyen
ametsak alferrik beti...»*

11. Bañan ondatu ezkeroztandik
euskaldun libertadia,
oiek diote: *«Auxen diagu
maite deguben bidia;
guk erri ontan nola ez leiken
geiago agindutzia,
onen-onena dek guretzako
ez alfer gastatutzia».*

Gaiñtxurizketak (5)
(El Cántabro, 1897-XII-12)

(5) Ramos Azkarate, seguru aski.

GUAMO'KO UMANTARI

(*Kuba'ko gudaldia zanean, egintz aundi batez
bere izena goitutako napartarra da ori*) (1).

Zeñek ez du gaur irakurri ta
zeñek ez ondorenian
Muruzabal'en eginbideaz
senti bere barrunbian
irazeki on alaigarriya
poz bat ain zori onian,
nola geiago ezerek eman
ez lezaioken añian...?
Zeñek ez du gaur izentatuko
iberotarren urrian
napar umanta leial orrena?
Zeñek ez Euskal-Errian
goitara jaso on Muruzabal
merezi dun ainbestian?
Ondo dezu, bai, zuk erakutsi
Guamo deritzan tokian,
armetan egin dezuben gauza
osoro miragarrian,
zer lezateken legoi malsoak
miñeritzen diranian.
Bai, ondo dezu erakutsi zer
oparotasun aundian
ama garbiyan bular sendoa
edana zeran pakian...

(1) Argibide au ez du Arrese'k *La Voz de Guipúzcoa*'n ematen; bai ordea *Nere Bidean* liburuan.

O, Muruzabal, zeradlarik
 muru txar estu batian,
 arkitu ziñan beste batzukin
 egoitza larri tristian;
 irurogein bat lagun geienaz
 antxen, ai!, bakartadian,
 algaindu gabe zeuden ola ta (2)
 pareta zarren tartian.
 Irurogein bat gudari eta...
 etsaiak... zenbat! aurrian,
 ixkanbilla ta griña sutuaz
 dena purruka nayian...
 Bañan... alferrik, azkar ziraden,
 inguratu ondorian,
 ill erituk ez beste guziyak
 jiratzen lengo bidian.
 Alfer-alferrik; On Muruzabal
 zedukaten giradian (*sic*),
 aurpetutzeko asmorik gabe (*sic*)
 odolez ustu artian...
 Etziñaden zu, On Muruzabal,
 muru zabal bearrian.
 naiko zabala dezu petxuan,
 naiko zabal biotzian!

Emeterio Arrese

Tolosa, 22 Diciembre 1897

(La Voz de Guipúzcoa, 23-XII-1897).

Nere bidean liburuan ere bai. Bañan itz asko
 aldatuta, eta olerkia laburtuta.

(2) Algaindu: *sobreponer, encajar, coser una cosa a otra.*
 (Arrese'ren oarra, *Nere bidean* liburuaren azken orrietan).

¡VIVA ESPAÑA!

(MUSICA DE LA MARCHA DE CADIZ,
CONFORME LA TOCAN LAS BANDAS MI-
LITARES)

Baziaztik gureak,
rataplan!
soldadu fiñ, maiteak,
rataplan!
manbisak zapaltzera,
beltz zatarrak astintzera.
Mulatu etorkiñ ori,
rataplan!
sudur zanpatu, lori,
rataplan!
alper guziak naspill,
bai, mutill,
mando-pill,
bota zak Kuba aldetik,
esanaz biyotzetik:
¡Viva España!

* * *

Laster zuen izenak
famak banatuak,
España guzian
dirade onratuak;
bada gloria argian
aurrengo lorea,
ala gaur ta beti izan da:
onorea!

Aufa, mutill!
Bagiazik maniguara gu,
puru aundiyak fumatzera, bai,
manbisen bizkarretik,
manbisen bizkarretik.

* * *

Aufa, mutill!
Kafe fiña ta azukrea, ta
kaña ederrez betetzera, bai,
ta guayaba gañetik,
mambisen,
manbisen bizkarretik.

(Se repite tres veces)

* * *

Balienteak aurrera,
baioneta zorrotz,
beti trankill biyotza,
egiñaz beti gala
españolak gerala,
zergatik odola
edo balorea izan da
española!

* * *

Eta zuek laster,
gloriyaz betea,
ekarriko dezute
maite dan pakea.

Bertso-papera, *Imprenta de La Voz de Guipúzcoa* moldiztegian argitara emana.

Bi tokitan arkitu degu paper ori: Errenteria'n, Enrike Elizetxea zanaren bertso-bilduman, eta Donostia'n, Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman.

Esan bearrik ez dago, bertsolari-bertsorik ez dala emen.

Bañan bertso edo bertso-moduko auek ere kanta-paperetan atera ta zabaldu ziran ezker, eta naiko euskera errikoia baitute, liburu ontan argitaratu bearrak zirala ez degu dudarik ere egin.

Cádiz'ko martxa ori ez degu ezagutzen. Bañan militar doñuren bat izango zan. Ain zuzen, gero zeatzago esango degunez, Ipar-Amerika gerran sartu zanean, Donosti'ko kaleetan barrena manifestazioa egin zan, martxa ori joz:

«A petición del público la banda tocó la popular marcha de Cádiz, viéndose obligada a repetirla en medio de los aplausos, vítores y aclamaciones».

Martxa ori modan zebillen ezker, norbaitek berari euskerazko letra jartzea pentsatuko zuan.

Bañan ipar-amerikarrik ez du aitatzen. Nazio aundi ori gerran sartu baño lenagoko letra izango da, beraz.

On izango da adieraztea, norbaitek ez baleki, *manbisak* España'ren aurka altxa ziran kubarrai deitzen zitzaiela; eta *manigua*, ugarte artako basoa dala.

AMA TA SEMIA

1. Sasoirik onenian
nator Kuba'tikan,
txit oso argaldua,
eziñ bizirikan,
bi besotatikan bat
antxen utzirikan,
juxtu-juxtu nagola
lurrian txutikan.

2. Nere ama maitia,
ez egiñ negarrik,
ez da errez etortzen
edozeiñ gaur andik;
naiz ni etorri arren
beso bat galdurik,
badaki etzaiola
ill beintzat semerik.

3. Nere seme laztana,
zer da planta ori?
Zu lengua zerala
gezurra diruri;
Kuba'n pasa dituzu
urte bat edo bi,
eta oso argala
zerade etorri.
4. Txutikan eziñ zaudez,
arrunt galdu zera,
nik uste etortzia (1)
zu orla etxera,
arren mutill ederra
ziñalik atera;
ai, nere semetxua
sendatuko al zera!
5. Nere ama maitia,
nik ez det kulparik
onela etortzia
etxera Kuba'tik;
guk izan bagenduen
dirua gogotik,
etzan, ez, gertatuko
orlako gauzarik.

(1) Lerro oni ez diogu esan-nairik arkitzen. Gure iritzirako, ez *nun uste etortzia* edo olako zerbait bearko luke.

6. Orla ikusten dira
baten alderdiyak,
eta nondik etortzen
diran mixeriyak;
gaur erregu zaiogun,
semetxo, guk biyak,
lagun zaigun zerutik
Jangoiko aundiyak.

Kaietano Sánchez Irure
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1898-II-28)

PAKEA!

*Izkribitzalle bikañ eta euskaldun jator
On Eujenio Gabilondo'ri donkituba.
(Pello Josepe'ren doñuban).*

1. Zer pasatzen da gure España'ya'n,
nere amatxo maitea?
Non da lenago gure ontasuna
egiten zuben legea?
Alde batetik guda, nekea,
bestetik berriz gosea,
mundu onetan asi da iltzen
gure gazteri jendea.

2. Artu ta eraman amen ondolik
pobre jendeen semeak;
etxean utzi dirubengatik
aberatsaren umeak.
Agintzen al du au egitea
zuzenbideko legeak?
Gobernu txarrak ekarri ditu
onelako naigabeak.

3. Ill ezkeroztik salda bearrik
ez du iñortxok izaten,
kontubak bear dira atera
guztiz okertu bañan len.
Kuba aldean, bear bezela,
ibilli bagiñan zuzen,
ez genduben gaur lanik izango
ainbeste odol ixurtzen.

4. Orain artean sufritu degu
geiegiyan naigabea;
utzi dezagun alde batera
esker gabeko umea.
Erruki zaitetz izate onetaz,
zeru ta lurren Jabea,
emanik gure Sorterriyari
merezi duben pakea!

Elías Gorostidi
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1898-IV-18)

SORTERRIYAGATIK!
(*Gernika*'ren doñuban)

1. Pruebarako egunak
etorri zaizkigu,
yanke'tar jende ori
txit arrotu zaigu;
ez dakite oraindik
zeintzuk geraden gu,
pazientziya guztiz
bukatzen bazaigu!

2. Norte-Amerikako
txerri zar trasteak
beretzat nai dituzte
gure parajeak;
ez da naiko orren aisa
gauza pentsatzeak...
Ez dira oraindik aitu
Okendo-semeak!

3. Dierririk geienak
esaten digute:
– Arrazoa guziya
zeok daukazute!
Oraindaño geiegi
sufritu dezute...
Beste modu batera
saiatu zaitezte!

4. Orrelako indarrean
bazerate arkitzen,
zertan gu puskatzera
ez zerate etortzen?
Nonbait zeon artean
dezute pentsatzen:
Españolen aurrean
ez baita errex jartzen!

5. Ezt'aski esatia
zeon parajeen
gaituzutela zubek
illko gu oñ pean.
Ez gerade jarriko
zerriyen mendean,
odol-tanto bakarra
daukagun artean!

Elías Gorostidi
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1898-IV-24)

IPAR-AMERIKA

1898'ko Ilbeltzaren 25'an, *Maine* Ipar-Amerika'ko gerra-itxasontzia Habana'ra iritxi zan, adiskide-bixita egitera.

Ordañetan, *Vizcaya* España'ko gerra-itxasontzia, Nueva York'era joan zan, bera ere adiskide-bixitaz.

Otsaillaren 15'an, gauean, iru aste oietan iñora mugitu etzan *Maine* ori, izugarrizko danbateko batek lertuta, ur-pera joan zan. Habana'ko agintariak-eta ango mariñelak salbatzearren alegin guziak egin bazituzten ere, berreun da larogei gizon galdu omen ziran.

Berri ori onela ematen zuan Donostia'ko *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak, andik bi egunera:

«*Se acaba de recibir el siguiente telegrama oficial de la Habana:*

Anoche a las ocho y media hubo una formidable explosión en la bahía con fuerte olor a pólvora, viéndose al acorazado norteamericano «Maine» hundirse por momentos, hasta que acabó por

sepultarse y desaparecer de la superficie en una segunda y espantosa explosión.

Hay muchos muertos y heridos.

Se cree que la primera explosión fue la de las calderas, corriendo el fuego a la Santa Bárbara».

España'ko gobernuak bi nazioen arteko batzorde bat osatu nai izan zuan, *Maine* itxason-tziaren ondandia zerk ekarri zuan azter zezan. Bañan ipar-amerikarrak, lan ori berak bakarrik egingo zutela...

Azterketa orrek ondoren latzak ekar zezazkean: lertze ori ontziaren barruan gertatua bazan, España'k errurik etzuan; bañan kanpotik bazan, orduan bazitekean errua berak izatea.

Ala, nork bere aldetik egin zuten egiteko ori. España'k, baporea barrutik lertua zala atera zuan; Ipar-Amerika'k, berriz, kanpotik egiña zala, ur-peko mina batez.

Beste batzuen terzerotza eskatu zuan orduan España'k; alegia, ez ipar-amerikarrak eta ez espainiarrak, beste batzuek baizik, arazo ori beren gain ar zezatela. Bañan Ipar-Amerika'k etzuan nai izan.

Andik aurrera, gero ta zorrotzagoak izan ziran alkarren arteko artu-emanak. Ipar-Amerika'k, indarra berak zuala bai-baitzekian, arronkak jo eta kondizio latzak eskatu; España'k, berriz, burua makurtu gabe bada ere, al zuana amor eman eta kontuz itzegin. Bearko...

Bañan etziran alkarrekin konpondu. Azkenean, artarako gogoa ere bazuala ematen baitu,

Ipar-Amerika'k gerrara jo zuan, Apirillaren 20'ean.

* * *

Donostia'n, telegramaz berri txar ori iritxi bezin laister, *manifestazio* gaitza antolatu zan.

Aurretik gazte batzuk, banderak-eta zera-mazkitela; urrena; *Unión Lírica* alkarteko musika-banda, Cádiz'ko martxa joaz; ondotik, jende-mordo aundia, txaloka eta *Viva España*'ka.

Kalez-kale ibilli ziran, konsuladoak bixitatzuz: *Avenida*, San Martín, Camino, Gipuzkoa'ko plaza, Konstituzio plaza...

Teatro Principal'ean batzarra egin eta andik *Gobierno Civil*'era, gobernadoreari erabakiak erakustera.

Juan Benantzio Arakistain, *Tradiciones vasco-cántabras*'en egillearena da ondoko erdal bertso au. Jendearen orduko berotasuna ederki agertzen du:

*Ardiendo en fuego de rapaz codicia
el Jingo infame nos provoca a duelo,
y hollando toda fe, toda justicia,
tiende su garra sobre el patrio suelo.
¡Pues guerra quiere, vamos a la guerra!
Si ellos piden a su oro la victoria,
hierro es lo que produce nuestra tierra,*

*y con hierro está escrita nuestra Historia.
¡Dios nos protege! ¡Nuestro es el derecho!
Láncense al mar las flotas españolas,
y caiga el Jingo a nuestros pies deshecho
o húndase la España entre sus olas! (1).*

Alegia, bere indarrak aundi-iritzi eta etsaiarenak gutxitu. Apustuetan eta negozioetan buru otza bear bada, are geiago gerretan. Batekoz bestera egin zan, ordea, emen. Don Kijote'ren sorterrria izaki. Ondoko ipurdikoak esnatuko zitu-tuan danak ere.

Buru-berotzalleak nortzuk izan ote ziran? Kondairalariak egunkariak egiten dituzte errudun. Batek onela dio:

«Funcionó en España un mecanismo que luego hemos conocido en diversos países confesado, legitimado y estable: mecanismo de una Prensa al servicio de una consigna esencialmente falsa, porque aparenta representar una opinión cuando la está creando en la mentira». (2).

Donostia'n ez-ezik, manifestazio sutsuak egin ziran beste zenbait erritan ere: Tolosa, Irun, Oiartzun, Errenteri, Pasai, Andoain, Ordizi, Zumarraga, Legazpi, Arrasate, Oñati...

Elizkizunak ere egin ziran, Jaungoikoari laguntza eskatzearren, Donostia'n-eta. Tolosa'n,

(1) *Euskal-Erria*, XXXVIII, 1898.

(2) P. Aguado Bleye: *Manual de Historia de España*, III, Madrid 1956, 781 orri-aldean, Jesus Pabón'en lan bat aita-tuz.

prozesioa. Zumaia, Oikia, Arrua, Aizarnazabal eta Artadi, Itziarrera peregrinazioz joan ziran.

Bañan gerrarako dirua ere bear-ta, kaleetan barrena eskeak egin ziran. Baita ere teatro-jaialdiak eta pelota-partiduak antolatu ere. Adibidez, Donosti'ko *Jai-Alai* frontoiean, Elizegi ta Brau (Eustakio), Mardura ta Takolo'ren aurka.

Diputazioak irureun milla pezeta eman zitan. Eta Udaletxeak-eta, al zuanak al zuana.

Andoain'go Udaletxeak etxe guziaz pasa zien eskea, euskeraz idatzita zegoan:

«Gure Jaun eta adiskide: España leialari eman dio gerra bide gabe, Estados Unidos deitzen zaion naziyoak. Orain lareun ta sei urte bizi ziran naziyo ortako jendeak zentzu gabe, salba-je moduan, lau oñekoen gisa, eta gure Españaren laguntzaz argitu ziran, gizon egin ziran; zer pagu emateko?

Ongi egiña aztu eta billautasun aundienarekin lagundu diyoe ixilka Kubako insurrektoai, gure mutill onak, gure gazteriya an ill dedin; eta, au asko ez balitz bezela, esan digue azkenik: Españolak, zuazte Amerikatik; Kubako isla zuena da, bañan guretzat bear degu.

Ez da au billautasunik lotsagarriena? Guri zor dizkiguen mesedeai leialkiro erantzun bearrean, kristauak bezela, ostu nai digue, indarrez geiago dirala uste dutelako, gure islarik aberatsena, Españaren perlik ederrena. Bañan ez; ez degu utziko guri burlik egiten; Kuba gurea da, eta guretzat bear degu.

Ez gaitu ikaratzen indarrak; ipintzen degu

konfiantza Jaungoikoagana, zuzenbidean guaz eta lagunduko digu; eta, gerra ematen diguen ezkeroz, gerraz erantzungo diegu Estados-Unitostarrai, eta menderatuko ditugu, ixilduko ditugu, oien arrokeriyak.

Gure lagun erbestekoak dabiltz suskizio edo ofrenda biltzen, gerrarako bear diran gauza asko erosi ditezen, eta jakiñik zugar arkitzen dan naitasuna, español leiala zeran partetik, gure naziya atera dediñ garailari, erregutzen dizugu eman dezazula zerbait, dagokizun eran, suskripzio edo ofrenda ortarako.

Andoaiñen, 1898'ko Maiatzaren 4'ean.

Juan Ignacio de Munita.- Ignacio Zalacain.- Luis Irazu.- Manuel M. Alcain.- Francisco Cipitria.- Clemente Balda». (3).

* * *

Gerra ori bi tokitan izan zan: Kuba'n eta Filipinetan.

Ipar-Amerika'k itxasontzi geiago, obeak eta berriagoak zituan. Batekoz bestera España'k: itxasontzi gutxiago, kaxkarragoak eta zarragoak.

Ipar-Amerikarrak Kuba'ko inguru guzia

(3) *Euskal-Erria*. XXXVIII, 1898.

artu zuten beren ontziekin, España'tik itxasontzirik eta bestelako indarrik sartu etzedin.

España'ko gerra-itxasontzien buru Cervera almiranteak ez omen zuan iñola ere nai itxasontzirik Kuba aldera ateratzerik. Aretzek ondo ikusten zuan, bapore oiek ara bialduta, zer etorkizun zeukaten.

Bañan bestela pentsatzen zuanik ere bazan. Ala, Marina'ko ministroak arako agindua eman zion eta abitu egin bear.

Maiatzaren 11'an, Martinicara'ra iritxi ziran, ikatza-ta artzera. Bañan ango agintariak ezezkoa eman zieten eta aurrera jarraitu zuten.

Andik aldegin eta ordu batzutara, telegrama bat iritxi zan España'ko Gobernutik Cervera almirantearentzat, beraren iritzia ala bazan, ontzi guziekin España'ra itzultzeko baimena emanaz.

Telegrama ori Cervera'ren eskuetara iritxi izan balitz, beste txori batek joko zien kuku itxasontzi aiei eta gizon aiei.

Bitartean, España'ko itxasontziak Venezuela ondoko Curazao ugartera iritxi ziran.

Denbora berean, beren etsai oiek Puerto Rico'n sartuak ziralakoan, Ipar-Amerika'ko itxasontziak ara joan eta egundoko bonbardeoa egin zioten San Juan ango iriburuari.

Curazao'tik irten eta maiatzaren 19'an, eguna zabaltzerakoan, España'ko itxasontziak Santiago de Cuba'ra iritxi ziran, Ipar-Amerika'ko ontziaz iges egiñez.

Santiago'n bear ainbat ikatz-eta ez baitzan, andik atera eta Puerto Rico'ra joatea pentsatu zuten. Bañan duda-mudetan denbora alperrik pasa, eta Ipar-Amerika'ko itxasontziak etorri eta irteera itxi.

Baita ere, Garagarrillaren 24 eta 26'an, amabost bat milla soldadu itxasoz ekarri eta Santiago ondoan legorreratu.

Uztaillaren 1'an, El Caney eta San Juan mendian burruka latzak jo ziran. El Caney ortan, Vara de Rey koronelak, bi ankak bonba batez galduta ere, kamilla batetik aginduak ematen jarraitu zuan, beste bonba batek il zuan arte. Bañan azkenerako, bi gaztelu oiek ipar-amerikarrentzat gelditu ziran.

Burruka oietan gizon asko il ziran, bai españitarrak eta bai amerikarrak. Bañan auek ere, beste ainbeste gizon edo geiago galdu zituzten Kuba'n, ango gaitz kutsakorrek mendean artuta.

Orduan Blanco jeneralak, España'k Kuba'n zituan indar guzien buru bera baitzan, itxasontziak Santiago'tik irtetzeko agindua eman zuan.

Cervera almirantea-eta, ondamendira zijoa-zela jakiñagatik, obeditu eta irten egin ziran, Uztaillaren 3'an, goizeko bederatzietan.

Itxurarik gabeko burruka izan zan. Eguerdirako, España'ko ontziak, batzuk sutan zeuden, beste batzuk ur-pera joanak, eta besteak legorra jo ta bertan geldituak.

Ipar-Amerikako itxas-gizonak oso jator portatu omen ziran, etsaiak uretatik ateratzen

eta abar. Baita errespetoz eta gizonki tratatu ere.

Uztailaren 9'an, ipar-amerikarrak Santiago bonbardeatzen asi ziran; eta 16'ean, ango espainitarrak errenditu egin ziran.

Bitartean, Filipinetan ere gerra España'ren kaltetan zijoan. Bañan ango berri urrengo bertso-saillaren ondotik emango degu, sail orrek orduko goraberak aitatzten baititu.

Uztailaren 18'an, España'ko gobernuak, gerra artan atarramentu onik etzegoala ikusirik, Frantzia'ri bitartekotza eskatu zion, pakea lenbailen egiteko. Baita ere Frantzia'k gogoz artu zer egin ori.

Artu-emanak bereala asi ziran, *Tratado de París* deritzana firmatu arte.

Gerra galtzea oso mingarria izan zan España'rentzat. Kondairalari batek onela dio:

«En los seis primeros meses del 98 dominan el orgullo, el entusiasmo y la confianza. Después de la catástrofe se cae en un estado de sorpresa primero; luego de rabia contenida, y por último de desilusión, de escepticismo. "Nos han engañado" es la frase que se piensa y se pronuncia en todos los corros» (4).

Euskalerrian ere berdintsu gertatu zan. Gerra-asierako berotasunak eta arronak ederki ixildu ziran. Orixe da itza: ixildu.

(4) P. Aguado Bleye: *Manual de Historia de España*, III, Madrid 1956, 781 orri-aldean, Jose Cepeda'ren itzak aita-tuz.

Andik aurrera, gutxitan aitatzten da gerra ori egunkarietan-eta. Noizean bein, erituentzat alako laguntzak dirala, alako jaialdia prestatu dala, mutil-talde bat andik datorrela... Bañan besterik ezer ere ez. Ixildu...

Izan ere, gerra ura danentzat amets bat bezela izana zan. Bañan amets gaiztoa. Eta amets gaiztoekin egin oi dana egin zan orduan ere: burutik alegiña uxatu...

Danok dakitena, idazle-gizaldi berri bat sortu zan orduan España'n, onenganako sentimenduak eta ikusmirak aldatuz.

España'k Kuba'ri askatasun osoa eman bear izan zion; eta Filipinas, Puerto Rico, Guam eta abar Ipar-Amerika'rentzat utzi. Naiz-eta onek ordañetan ogei milloi dolar eman, etzuan iñola ere negozio txarra egin.

* * *

Erituentzako laguntza oietan oso berezia eta aitagarria izan zan Antonio Arzak euskal idazle, olerkari eta *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendariak egin zuana.

Arzak orrek, *Sufritzen* izeneko poema idatzia zuan, mutil baten Kuba'ko ibillerak eta ondoko egoera eta azken errukarria kontatuz. Eta poema orrekin zer egin zuan, *Gurutze Gorria* de-

ritzaion alkarteari idatzi zion eskutitz onek erakutsiko digu:

«Tengo el honor de poner a la disposición de esa benemérita Junta mil ejemplares de unos pobres versos que, con el título de Sufritzen, acabo de escribir, pensando en el heroico repatriado de las que fueron colonias de España.

En atención a esta circunstancia, ya que no al escaso valor de mi humilde donativo, espero se dignará aceptarlo la Asociación de la Cruz Roja, junto al homenaje que tributo a las caritativas y distinguidas señoras que, al recoger con cariñosa solicitud el último suspiro de tantos jóvenes, muertos en la flor de su edad, atesoran las preciosas bendiciones de sus madres sin ventura!

Dios guarde a usted muchos años.

San Sebastián 9 de Diciembre de 1898. - Antonio Arzac.

Señora Presidenta de la Junta de la Cruz Roja. - San Sebastián». (5).

Poema ori zergatik ez degun emen argitaratu? Batetik, poema dalako; luzeegia, beraz, liburu ontan sartzeko. Bestetik, berriz, Antonio Arzak orrek olako beste poema batzuk ere badi-tualako; eta argitaratu bai, bañan danak batera egin bear lirakelako.

(5) *La Voz de Guipúzcoa*, 1898-XII-13.

BERTSO BERRIAK
YANKETARRAREN ESKARMENTUGA-
RRI JARRIAK

1. Yanketarraren pasarizuak
astera nua zabaltzen,
barkuaz eta armamentuaz
emen gaituzte galdutzen;
jendia eta dirua ere
doblia dala esaten,
alare gerra galdutzerikan
ez degu esperatutzen.

2. Jende asko ta dirua obia
gerrarako gauza onak,
odolak eta giyari onak
austen ditu oiek danak;
Españitarrak oraindik ere
emango dizkate lanak,
ez diyotegu barkatu biar
alik eta ill arte danak.

3. Española da jende gutxi ta
gañera berriz txikiyak,
bañan sobrate ibiltzen ditu
odola ta maleziyak.
Zer baliyo du aiek bezela
gizon aundi ta nagiyak?
Yanketarrentzat asko giñake
emengo lau probintziyak.
4. Diru asko ta jendia bañan
odola falta eiten an,
mutur-ezurak iñori austen
ez dute izango lanikan;
naiago nuke emen baleude
tortilla egiteko bertan...
Ia, mutillak, egitzatzute
oso txikitu edo jan!
5. Yanketar oiek sarrera aundiyak
eiten emen dira asi,
erri kaxkar bat *Pilipiñetan*
artu digutela guri;
orain bezela obeko dute
segurutikan ibilli,
Manilik artu ezetz apustu
iñola españolari.

6. Bullak altutik asi dituzte,
ez dakit diran bajatu,
guk españolak ez diyotegu
biar aieri barkatu;
barkatu bañan naiago nuke
soka batian urkatu,
erri kaxkar bat artuagatik
ez, mutillak, ikaratu.
7. *Aguinaldo* orrek aziyo txarrak
egiñ emen dizkigu guri,
anparatuko gindubela ta
orain bera kontra asi;
legor puxka bat artu diyote
tranpiyan españolari,
yanketar oiek oso kontentu
emen dabilta kantari.
8. *Aguinaldo* orrek agindu ziyon
emen gobiernubari:
arrek kontu eingo ziyotela
Manila eta islari;
biyen bitarte yanketarrakin
alkar artuta ibilli,
ziri ederra sartu diyote
arretxek españolari.

9. Yanketar oiek aren anparuan
sartu emen dira bero,
berak ere ibilli lezateke
makiña batxo kuidaro;
aren lepua ekartziatik
dirua agindua dago,
Gobiernuak eman nai ditu
ogei ta bost milla duro.
10. Aiek dirala meriyo orra
alderdi onak etorri:
gauza guziyak gareistitu ta
jornalak bajatzen asi.
Nork ez diyote kontra egingo (1)
orlako naziyuari?
Naiago nuke lepo moztutzen
al banitzake danari.
11. Paper onetan ezin kabitu
yankien istori dena,
ta orrengatik asmuan nago
geio jartzeko urrena.
Nola ez bada semia banaiz
Españi maitiarena?
Beste bertsuan ixildutzen da
Benito Martiarena.

(1) Bertso-paperak: *dikote*.

12. Yanke deitutzen guk diyotegu
gure kontrako aieri,
konprenditutzen ez dubenari
nai diyot adierazi;
pasarizuak ez ditut jarri
preziyoz oso gareisti,
amabi bertso bost zentimuan
nai ditubenak ikusi.

Bertso-papera, *San Sebastián. Imp. y lit. de V. Iraola* moldiztegian argitara emana, Usurbil-ko Egiluze-txiki baserritik jaso, bertako Feliziano Aizpurua'ren bitartez.

Bertsolariaren izen-deiturak 11'garren bertsoak ematen digu: Benito Martiarena. Bañan ari buruz ezin dezakegu batere argibiderik eman.

Kursiba letraz idatzi ditugun itzak, bertso-paperean ere olaxe daude.

Urterik ez da iñon esaten. Bañan ipar-amerikarrak gerran asiak dira; 1898 urteko bertsoak, beraz; apirillaren 20'garrena baño geroagoak.

Arronkaz betetako bertsoak dira. Apostuzale jende itxu ta beroa orrela mintzo oi da. Ta ara bertsolariak zer dion bostgarren bertsoan: Manilik artu ezetz apustu... Ipar-amerikarrak utsaren urrengo dauzka. Bañan kontrarioa aintzat ez artzeak, ez du ez aposturik eta ez gerrarik irabazten sekulan lagundu izan.

Kuba alde batera utzita, Filipinetaz itzegiten digu bertsolariak.

Zazpi eta zortzigarren bertsoak, Aguinaldo aitatzan dute. Emilio Aguinaldo ori, 1896'an altxa zan españitarren aurka. Bañan altxa-aldi ori konponketa batekin bukatu zan: 1897'eko abenduaren 23'an, *Pacto de Bial-na-bató* deritzana firmatu zan: Aguinaldo eta buruzagi-mor-do batek Hong-Kong'era alde egingo zuten; eta, an bizi al izateko, diru-pilla ederra artu.

* * *

Pakeak etzuan asko iraungo. Bañan bitarte artako gertaera jakingarri eta xeble xamar bat kontatu nai degu. *La Voz de Guipúzcoa*'k dakar, 1898-III-3'an, Filipinetako adiskide batek esku-titzez bialdua dala esanez.

Indag errian, bi tagalo-talde, bi insurrekto-talde agertu omen ziran. Talde baten kapitana-rekin zearo arrituta gelditu omen zan adiskide ori, tagalo-itxurarik ez baitzuan eta aren izen-deiturak Toribio Mujika baitziran. Zein errita-koa zan galdetu eta onako izketaldi au egin omen zuten:

«— *Está muy lejos de aquí - contestó.*

— *Luego no es usted filipino.*

— *Llevo 23 años en el Archipiélago y me consi-dero ya como hijo de esta tierra; pero la verdad es que yo nací en Oyarzun, provincia de Guipúzcoa».*

Ondoren aren biografia ematen du: Santa Kruz apaizarekin ibillia zan, gero Lizarraga're-kin... Manila'ra joan, joko batzuk artu eta erriz-erri asten da, ango jende guztia engañatuz.

Bein, ordea, mendian arrapatzen dute eta larua ez beste danak kentzen dizkiote.

Ango jendea armetan altxa zanean, eun bat tagalo bildu eta onela esaten die tagaloz:

– Zuek ez dakizute zuen izkuntza besterik eta gazteleraz itz batzuk; bañan orain zeruko izkuntza entzungo dezute.

Eta euskeraz egundoko itzaldia egiten die. Angotarrak, eroturik, Jaungoikoaren seme deitu eta beren buruzagitzat artzen dute.

Pakea egindakoan, Bial-na-bató'ko ori alegia oker ez bagaude beintzat, urretan bosteun *peso* ematen diote eta ostera erriz-erri asten da, bere jokoeekin, negozio ona baita.

Eskutitza bialdu zuan adiskide orrek onela galdetzen dio:

– *Pero, hombre: ¿no siente usted deseos de volver a Oyarzun?*

– *No, señor; por allí no hay tagalos a quienes enseñar las maravillas del billar romano.*

* * *

Ipar-Amerika España'rekin gerran asi zanean, Aguinaldo eta Hong-Kong'era alde egindako beste buruzagi aiek danak Filipinetara ostera etorri eta berriz ere gerrari ekin zioten.

Ipar-Amerika'ko gerra-ontzi-mordo bat, 1898'eko Otsailla ezkerro Hong-Kong'en zan. Gerra asi bezin laister, Apirillaren 24'an, Filipinas aldera abiatu zan, eta 30'an Manila'ko itxas-kolkora iritxi.

Manila'tik ogei ta amairu kilometrora, Ca-

vite dago; *arsenal* eta *plaza fuerte*, españitarrak an ziran denboran. Antxe alkarrekin topo egin zuten Ipar-Amerika'ko eta España'ko itxas-ontziak, Maiatzaren lenengo egunaren argizabal-tzearekin.

Len ere esan degunez, Ipar-Amerika'ko ontziak geiago ta obeak, España'koak gutxiago eta xarragoak, alamoduzko burruka egin zuten.

Kondairalari batzuek diotenez, ipar-amerikarrentzat jolas bat izan omen zan, *tiro al blanco* egiñez. Bigarren ordurako, españitar ontziak txetu zituzten beintzat.

Españitarrak 167 gizon il ziran, eta 214 zau-ritu. Ipar-amerikarrik, etzan iñor ere il; eta zau-ritu, zortzi besterik ez.

Ondoren, Cavite erria artu zuten amerikar-rak, eta urrena Manila inguratu. Bañan Agoz-tuaren 14'garrena arte etziran sartu.

Bostgarren bertsoan onela esan du bertsolariak:

erri kaxkar bat Filipiñetan
artu digutela guri.

Eta onela bukatzen du bertsoa:

Manilik artu ezetz apustu
iñola españolari.

«Erri kaxkar» ori Cavite da, dudarik gabe. Kaxkarra esaten dio bertsolariak, bañan Filipi-netako gerra ori antxe erabaki zan. Gauza tris-tea izango da, bañan maite du gizonak bere bu-rua engañatzea...

Beste iru illabete bear izan ziran Manila ar-tzeko. Bitarte ortan jarritako bertsoak, beraz.

KANTATXOAK

*(Brull maisuaren
napar jotaren doñuban)*

1. Txit gaizki arkitutzen da
gaur gure Sorterriya;
ez zaio faltako onduan
euskaldun gazteriya.
2. Ama, zuretzat dirade
gure gauza guziyak;
dauzkagun diruak eta
gu guziyen biziya.
3. Ez zaitezela ikaratu
oien arronkarekiñ;
oñperatuko ditugu
arbazta utsarekiñ.

4. Fede aundiya daukate
beren diruarekiñ;
odolkiz aseko gera
oien zerrikiyekiñ.

Elías Gorostidi
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1898-V-2)

GERRA TA KARIDADEA DONOSTI'KO ZIGARRERIYARI

1. Orra nola arkitzen
zaigun Españaia:
Norte-Amerika'kin
gerran da asiya;
nola ikusi duten
daukala premiya,
egun bateko lana
or dute utziya,
gañera kupirik ez
uzteko biziya.
2. Ikusirikan gure
lur maitia gerran,
legorrak utzi eta
itxas zabalean,
danak altxatu dira
esanaz batean:
Ama, ez ikaratu
gu geran artean,
ill bearrak dirade
gure anka-pean.

3. Biyotz oneko ume
leial da umillak
beti izango ditu
gure Donostiya'k.
Zigarrerian diran
langille guziyak,
ume, neska ta andre,
morroi, nagusiyak,
yanke zerriyak baño
obeto aziyak.

J. Elizegi
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1898-V-9)

Gerra arek Donosti'ko zigarrerian zer ikusteko zuan, egunkari orrek berak argituko digu, maiatzaren 8'an onela baitio:

«A las operarias de la Fábrica de Tabacos de esta ciudad se les ha anunciado que es muy probable, casi seguro, que se paralicen los trabajos por tiempo indeterminado en el mes de Junio próximo.»

Como esto sería para San Sebastián una verdadera desdicha, esperamos que las autoridades locales tomarán cartas en el asunto, pues para algo está contribuyendo el Ayuntamiento a la construcción de la nueva fábrica».

ROMERO ROBLEDO

Sagasta'k deitu diyo
Romero jaunari,
onek eman dizaion
iritzia arri,
zer komeni ote zaion
gure Españiyari:
pakea egiñ edo
jarraitu gerrari.
Ez nuben uste zala
orlako kaikuba
Sagasta, ez izan arren
ezer jakintsuba.
Jauntxo orren esana
bada adituba,
ez da gaizki arkituko
erri maitatuba...
Zer ajola izan bear
diyo Romero'ri,
gure lege ederraren
ondatzalleari,

gaizkiya etortzea
pobre jendeari
eta ondamen aundiya
gure Españiyari,
baldiñ arkitzen bada
diruz beterikan,
gerrara ez bada joaten
bere semerikan,
ez badiyote ikutzen
beñere boltsikan,
zintzo kobratzen badu
gure larrutikan?
Romero kontsejatzen
gure Españiyari!...
Denbora ederretara
gerade etorri!
Eskatu dezaiogun
Jaungoiko Jaunari,
pakea eman zaiola
Erri maiteari.

Elías Gorostidi

(La Voz de Guipúzcoa, 1898-VII-8)

Franzisko Romero Robledo (1838-1906), oker ez bagaude, *ministro de gobernación* zan Cánovas'en gobernuan, Euskalerriko fueroak galdu ziranean. Orregatik esango dio Elias Gorostidi orrek: «gure lege ederraren ondatzalleari...».

BERTSO BERRIAK GERRAREN GAÑIAN JARRIYAK

1. Bertso batzuak jartzera nua
arrazoiaren gañian,
gerra gogor bat nola izan degun
españolaren kaltian;
erreinu danok agindu zagun
bakoitzak bere lurrian,
pobre ta aberatsa bizi gaitezen
Jesukristoren legian.
2. Bost urte ontan gerran dabilta
españolaren semiak,
lau urte t'erdi kubanuekin,
ala esaten du jendiak;
sei illabete naziyuekin
justu dituzte pasiak,
Españi ontan egin dirade
amaikarekin pakiak (1).

(1) Bertso-paperetan: *pakian*.

3. Salbajerikan ez det ikusi,
nik beti kristandaria,
uste det dala Jaungoikozkoa
españolaren jendia;
Jesus maitia, guregatikan
arren oroitu zaitia,
bost urte ontan galdu da zenbait
ama pobreren semia.

4. Españolaren seme maitiak,
nola zerate ibilli?
Bost urte ontan pasa dezute
zenbait gose ta egarri;
mutil sanuak joan ziñaten da
asko inbaliyo etorri,
gurasuentzat alderdi onak
ez dituzute ekarri.

5. Seme maitian pasarizuak
emen ari naiz zabaltzen,
gurasuari lenaz gañera
negar batzuek berritzen;
falta dutenak billa dabilta,
ez dituzte iñon topatzen,
mundu onetan inozentia
errez da engañatutzen,

6. Gerra-lanian beti nagusi
españolaren semiak,
naziyo danak bildur batekin
errespetuakin lajiak;
Norte'ko oiek eman dituzte
oraingo pasaportiak,
non ote dira gure aitonen
lengo abillidadiak?

7. Aitona oiek oso gogorak
zabaldu zituzten zañak,
ez dakit ziran aritzak edo
izango diran gaztañak;
fuero ederrak jarri zituzten
irabazirik azañak,
ez daude berriz etorririkan
aiekin ziran tamañak.

8. Urte gutxitik onera, jaunak,
ai, abek diferentziyak!
Lengo ederrak bagenituben
aitona aiek jarriyak,
zergatik ziran leku askotan
batallak irabaziyak;
aien fueruak galdu ziran ta
jarri dituzte berriyak.

9. Aitona onak irabaziyak
galdu dizkigute aitag,
beren kontrara ibiltzen dira
amaika aldiz *tratistak*;
oponiyo bat beti badegu
zori gaiztozko karlistak,
atzen gerr'ortan jarri zituzten
txit oso lege politak.
10. Karlista oiek eman zituzten
petardo izugarriyak,
ez det esaten kulpa zutela
mendiyan ziran guziyak;
gauz onik ez du beñere ekartzen
indarrezko arrokeriyak,
ondorenguai billatu dizkate
sujetatzeko tokiyak.
11. Zenbatekuak ote dirade
karlista oien kostuak?
Beti ematen ari gera ta
ezin pagatu kastuak;
oraingo saltsak aztuko ditu,
nere kristabak, lenguak;
gauden pakian, denborarekin
jakingo dira kostuak.

12. Biba Naparrak, Alaba'rekin,
Bizkaia ta Gipuzkoa,
lau probintziyak irabaziya
bazuten beren gradua (2);
arbol eder bat bada Gernika'n
kontu egin bez gaidua,
euskaldunetan partituba da
zenbait mokadu gozua.

13. Arbola zan txit egokiya ta
fruitu ederretakua,
arren ordañez jarri dutena
izan biar du bastua;
apenas duben euskaldunentzat
izugarrizko gustua,
pena detala despeitzen det
amairugarren bertsoa.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Usurbil'ko Egiluze-txiki baserritik, bertako Fe-
liziano Aizpurua'ren bitartez.

Bertso-papera, *Imp. de B. Valverde - Irún*
moldiztegian argitara emana, Oxford'ko *Bod-*
leyan Library'tik.

Aldaketarik ez dute alkarren artean bi ber-
tso-paper auk.

(2) Bertso-paperak: *here*.

Oxford'ko paper ortan, eskuz idatzita, auxe irakurtzen da: 1899.

Biltzalleak paper ori eskuratu zuan urtea esan naiko du. Edo, bestela, bertsoak jarri ziran urtea.

Bigarren bertsoak dionez, gerrak bost urte iraun ditu; «lau urte t'erdi kubanuekin». Bañan gerra ori, len esan bezela, 1895-II-20'e an asi baitzan, urte-kontu ori ez dakigu xuxen aterea dan.

«Sei illabete naziyuekin justu dituzte pasiak» esaten du bigarren bertso orrek. Ipar-Amerika'rekin alegia. Arekin gerra, 1898'ko Otsaillaren 15'e an *Maine* itxas-ontzia lertu ondoren, urte bereko Apirillaren 20'e an asi zan.

Azken bertsoetan, erru guzia karlistai botatzen die bertsolariak. Alegia, fueroak aiek galduak zirala; eta soldaduzkara eta gerrara joan bearra orduantxe etorri zala Euskalerrira... Nork bere iritzia noski, eta bertsolari onek ere berea...

BERTSO BERRIAK
ARREN! ERRUKI ZAITEZTE GUZAZ

1. Kuba'tikan etorri
giñaden gaztiak,
nola arkitzen geran
guziro tristiak,
errukitu zaitezte,
euskaldun maitiak,
ikusirikan gure
begi-bitartiak.

2. Gogoratu utsakin
alako urteak,
nola negar egin ez
Aitorren semeak?
Nola ez gera egongo
arantzez beteak,
ikusirik galduta
ugarte gureak?

3. Iru urte osuak
gerran igarorik,
gure aldetik ez da
izandu paltarik;
guztiz fiñ ibilliya
ez degu damurik,
barauba pranko egin
ditugubelarik.

4. Gaitza eta gosea
guretzako beti,
bañan guregandikan
diruba urruti;
bizirik nola gauden
Jaungoikoak daki;
nunbait oraindik emen
nai gaitu iduki!

5. Dirubaren gosea
daukagu geiegi,
zortzi bañon geiago
ginduzke amabi;
osasuren paltan
nola gauden eri,
txakur batzuek biltzen
gabilitza kantari.

6. Emen txit umilla
bada gazteriya,
nola ez du izango
gure errukiya?
Nork ukatuko digu
txakur bat aundiya,
kentziagatikan
guri *miñ-oriya*?
7. Ia, mutil gazte ta
mirabe azkarrak,
isilltzen dituzuten
gaur gure negarrak;
gizon, andre, agure,
ere atso zarrak,
saia bitez sendatzen
ibar-menditarrak.
8. Bakoitzak papertxo bat
erostearekin,
portatubak zaudete
txit ondo gurekin;
ongi gelditzen dira
Jaungoikoarekin,
diranak bizitutzen
errukiyarekin.

Bertso-papera, *Tolosa: Imp. de Francisco Muguerza* moldiztegian argitara emana, Alsasua'n, Konzepzion Mendiluze'ren eskutik jaso.

Kuba'tik etorri diran gazteen bertsoak ditugu. Ango ugarteak galdu ondoren etorri ere, bigarren bertsoak dionez; 1899 urteko papera, beraz, seguru aski.

Irugarren bertsoak esaten duanez, berriz, iru urte osoak igaro dituzte gerran. Ain zuzen, 1895'an, eta 1896'an ere, joan ziran emengo zenbait mutil aruntz, eta bertsoak ere jarri zituzten. Eta iru erantsita, 1898 edo 1899 urtea degu.

Bañan gaitza, gosea eta dirurik-eza berekin ekarri dituzte. Eta bertso kantari eta paperak salduz, sos batzuk bildu nai.

Gaitz bat bere izenez aitatzen dute: min oria. Azkue'ren iztegiak *ictericia* dala esaten du. Bañan aldi ontan *fiebre amarilla* izango da; Kuba aldean, lurralde bero aietan alegia, ainbestetan jotzen zuan gaitz kutsakorra.

ON FELIPE DUGIOLS JAUNARI

1. Zaleturikan gaudez
luze iritzirik,
gure lagun maite bat,
bai, ikusi nairik,
onuntza datorrena
ontziyan sarturik,
oso gizon argiya,
Filipinetatik,
sutan beti ibilli
dezuna aurretik,
gerrara emendikan
joan zana txit pozik (1),
eta korajetsua
berez aiñ izanik,
laister da Donostiyan
gurutzez beterik.
Ongi etorri zaitez
gure Donostira,

(1) *La Voz de Guipúzcoa*'k: zan.

parerikan eztuben
txukun da garbira,
guztiyok asko maite
zaitugun tokira,
gizon argiyak sortzen
diraden kabira.
Badakit, bai, egongo
gerala begira,
danok zoratu nairik,
zure arpegira,
esanaz: Au da Dugiols,
ale etorri da (2),
gerran nekaturikan,
gaur Euskal-Errira.

Kaetano Sánchez Irure
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1899-III-1.)

(2) *ale: alere, alare.*

ONGI ETORRI BAT ON DUGIOLS JAUNARI

1. Filipinatik etorri zera
aspalditik an zeundena,
erri (y) onetan eziñ geiago
ezagutzen zaituguna;
oraiñ desio dizuguna da
urte askoko osasuna,
emen gurekin bizi zaitezen
paregabeko laguna.

2. Dugiols azkarra, maite zaitugu
lenago ainbat oraindik
edo geiago, sinistra zazu,
biyotz-biyotzen erditik;
zuri begira guztiyok gaudez
iya zoratu biarrik,
pozen meriyoz begiyetatik
malkuak kendu eziñik.

3. Emen geraden lagun guztiyak
aiñ gaudez gaur bateturik,
egin dituzun azain ederrak
lenbailen banatu nairik;
ondo dakigu, Dugiols argiya,
iñork esan gabetandik,
Filipinetan ez dala izan
zu beziñ gizon bizkorrik.

4. Zure kondaira banatu eta
danak irakurritzian,
esango dute biyotzetikan
gure izkuntza maitian:
Ez da beste bat orla ibilli
an oraingo gerratian,
orrelakuak gutxi topatzen
dira mundu zabalian.

5. Ongi etorri on bat nairikan
lagun guztiyak gaur zuri,
oraiñ noletan, ez, ez dakigu
naitasun onez eskiñi;
borondatia danok daukagu
berez zaiguna etorri,
egiñ dituzun lanaren orde (1)
dituzulako merezi.

(1) *La Voz de Guipúzcoa*'k: eziñ dituzen.

6. Lagun guztiyak txit pozez gaudez
biyotza eman nairikan,
zeiñ ezta bada ala egingo
zu emen ikusirikan?
Apenas dezun mundu onetan
iñor nai eztizunikan,
eziñ liteke, Dugiols bizkorra,
zein zeran ezaturikan.

Egillearen izenik gabeko bertso auek, *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian argitaratu ziran, 1899'ko apirillaren 10'an.

Felipe Dugiols Balanzategi onetzaz, onela esaten du Serapio Mujika zanak, *Geografía del País Vasco-Navarro, Provincia de Guipúzcoa*, liburuan:

«Nació en 1840 y tomó parte en la guerra de Africa como voluntario en 1859, así como en la guerra civil contra los carlistas, pasando del cuerpo de voluntarios de Oñate al de miqueletes de Guipúzcoa. Tomó parte activa en la campaña de Filipinas los años 1897 y 1898, distinguiéndose por su bravura, y los combates de las poblaciones de Malolos y Barasoain, Angeles, Bacolor, San Matías, Santo Tomás y otros, son páginas de gloria que Dugiols puede ostentar con orgullo. Por la acción de Santo Tomás se le concedió la cruz laureada de San Fernando de segunda clase. En su pueblo natal se levantó una estatua en su honor y se hizo la inauguración el 15 de Septiembre de 1901...».

ONGI ETORRI TOLOSA'RA
ON FELIPE DUGIOLS JAUNARI

Ama batentzat gerran izena
dalarik penagarria,
beti oroitzen dagoalako,
etsi eziñik tristia,
urrutietan, oso aparte,
gudan ill zaion semia,
onek askotan eman deioke
zerbaiten alaipiria,
ikusirikan bentzutuaren
izena goian jarria.
Alaxen bada Filipinas'en
bukaturik gerraldia,
—gobernu txarra dala meriyo
amaiken ondamendia—,
zuk dakarkizu ill ziran aien
gurasoentzat gordia
seme maiteak azken aldiyaz
egindako far-irria,
zuk dakarkizu itsas arunztik
kondaira miragarria,

bere orriyaz amak dezaten
iduki malko-zapia.
Nanca, Palili, Barasoain ta
Santo Tomas'ko uria,
iritxi zeran toki bakoitza
izanik omengarria,
urrezko letraz izentatzen da
goiturik Euskal-Erria.
Zenbat bider an zure ezpataren
altzairu dizdizaria,
balitz bezela oñazkar edo
tximistan keñu bizia,
erabilli da etsai tartian
etsai-odolez betia!
Zenbat bider an zuk ote dezu
entzun oiu basatia,
zenbat alditan sutunpadaren
burrinbots izugarria!
Bañan aurrera! Aurrera beti
zu ta zure talderia,
koaje aundiz purrukatuta
desegiñ arte guzia,
aurrera beti erakutsirik
denaren gaiñ ipiñia
leialtasuna biotzian ta
eskuan jazar-burnia.
Orrengatikan zeradelako
ernai, kementsu, zolia,
zerutaraño igo dezuna
euskaldunen jatorria,
dezubelako fedez muiñdu
Legazpi'tarren obia (1),

(1) Obia: *Tumba*. (Egillearen oarra).

merezi eta eman dizute
 San Fernandon gurutzia,
 gudari batek geien-geiena
 opa lezaken saria (2).
 Famaren egoz Filipinas'tik
 etorri zan albistia,
 esanaz nola ziñaden ango
 umant bentzutezgarria (3);
 famaren egoz zure izenan
 oiartzun (4) ibilkaria
 mundurik mundu banatzen dabill
 begiramen txit aundia.
 Gero nolabait danon mesedez
 egin danean pakia,
 amaiturikan zorigaiztozko
 ixkanbilla ta nasia,
 ugarte aien magaletatik
 biurtu zera tentia,
 edergarritzat erakutsiyaz,
 armetan irabazia,
 kolko barrua balaz bezela
 gaña gurutzez josia.
 Argatik orain Tolosar denak
 senti degun pozaldia,
 pentsaturikan Tolosa dala
 zu jaio ziñan tokia,
 ez da erreza zenbateraño
 irixten dan esatia;

(2) Saria: *Premio*. (Egillearen oarra).

(3) Umant bentzutezgarria: *Héroie invencible*. (Id.).

(4) Oiartzuna: *Eco resonancia*. (Id.).

ler egin naian arkitutzen da
beintzat nere barrunbia,
erru sendoaz dirudiela
atsegiñezko labia;
ta nik bezela beste guztiyak
sentirik borbor eztia,
etzaigu noski laister aztuko
aiñ egun zoragarria.
Arras illuna dagoalarik
sorterriko eguzkia,
gorrotxo txar ta griña beltzaren
odoi lanbroz estalia,
gaur iñoiz baño argi geiagoz
azaldurik arpegia,
zure bitartez entzuten gaude
bada txit alaigarria,
negar zotiñak ziran lekuan,
jardun gozoko aria.
Aspaldi ontan zai geunden eta
gaur zu emen ikustia,
doatsutasun aundiya da ta
gozakiro bat lodia;
baita zuk ere begiratzean
ondoren dezun jendia,
zuri agur bat egiteagatik
bultzaten bata bestia,
pozaren bidez irtengo zaizu
osoro xamurgarria
begietara malkua eta
ezpañetara irria...
Modu onetan elkarrentzako
izanik agergarria,

maitetsuenak oi lezateken
bezin poz maitagarria,
denorengandik artu ezazu,
o euskal gudalaria!,
agur egiñaz orain ematen
dizugun ongi etorria.
Zabaldu bedi mundu guzian
zure kondaira garbia!

Emeterio Arrese
Tolosa 21 Mayo 1899

La Voz de Guipúzcoa egunkarian, 1899'ko
maiatzaren 21'an.

Euskal-Erria aldizkarian, XL, 1899'an.

Olerki au, *Nere bidean* liburuan ere argitara
eman zuan Emeterio Arrese'k.

Bañan itz asko aldatuta eta oso laburtuta.
Emen eun ta ogei lerro baititu; eta esandako li-
buru ortan berrogei ta zortzi. Erdia ere ez, be-
raz.

FILIPINASTI

Ze urrun da emendik
nire Euskalerra,
urrun ama laztana,
urrun etxadia,
urrun maite kutuna
biotzan jaubia!
Ze urrun da nigandik
pozgarri guztia!

Errebido

Bertsö bakar au, *Euskalzale* aldizkarian,
1899-V-25'an agertu zan.

Errebido ori ez dakigu nor zan.

ON FELIPE DUGIOLS'I OROITZA

Nork ez daki zein zan Dugiols
gudari argidotarra,
alde danetan zabaldu bada
zuben fama ta aztarra?
Erniyopeko ibai-ertzian
dago toki jaiotarra,
zeña dan lengo antziñetako
fueruen siaska zarra.
Gudan asi ta gudan bukatu
zaio izaki gallarra;
lege galdubak berrituzkeo
beti griña ta indarra,
orreatan penaz izan du
orrela ibilli biarra! (1)
Filipiñetan kondaira utzi du
eder da aundi xamarra,

(1) Nunbait ere irakurri izan degunez, fueroak galdu ziranean, mikeleteak-eta, euskaldun liberalak alegia, karlistekin bat egin eta armetan altxatu nai izan zuten. Etzuten egin, bide ortatik zer etorkizun zegoan tontoenak ere ikusten baitzuan. Pentsamentuak pasa bai, ordea. Eta gobernuak, bada-ezpada ere, zalaparta berri orren buru izango ziranak kanpora bialdu omen zituan. Aietako bat Dugiols, Filipinetara joan bear izan zuana.

naiz ez ekarri merezi zuben
jeneralaren izarra.
Lau milla gizon artuta ziyon
beñ antolatu jazarra
Aguinaldo txit sonatzen danak,
ustez zalako azkarra.
Zazpireun gizon artuta bera,
agintariya bakarra;
eraso ziyon «Aurrera, mutillak!»
gogor egiñik diarra,
zaldiya illa, ezpat autsiya,
gañera eri ta baldarra,
garaipengarri libre irten zan
gora jasorik galparra!
Orain sosegu ordez gañetik
eriyotz triste liparra...
Oroiturikan nori ez irten
lantuba eta negarra...!

Jose Ganboa

La Voz de Guipúzcoa, 1900, Apirillak 29,
igandea.

ILL DA!
FELIPE DUGIOLS ZANARI

1. A, zer egiya gure izatea
mundu ontan utsa dala!
Gaur eguzki bat dizdizariya,
bigar... ezer ez, itzala.
Orain urte bat geienaz ere...
—auxen da bizitz argala!—
zu ikusi ta nork esango zun
aiñ azkar illko ziñala?
2. Tolosar denak goguan degu
zure onuntz etorrera,
ezta lengua, ez, orain emen
egiten dezun sarrera;
orduan pozez erri guztiya
irten zitzaizun bidera,
eta gaur oso penaz beterik
negarrez arkitzen gera.

3. Neke luzeai gallen emanaz
bizitu zera garbiro,
biotza sendo ta leialtasuna
azalduaz txit argiro;
istori edo kondairak ere
aitortzen du gaur pozkiro,
nor ziñaden zu aurrez etsaia
ikusten zendun aldiro.

4. Burniyak eziñ menderatuta
gudari ernai bizkorra,
azkenerako eri sumiñak,
berez nola dan gogorra,
illunpetikan ondo zainduta
sarturik bere listorra
ill zaitu, baña gaurtik aurrera
izango zera illezkorra.

5. Zauden lekuan ez dezu entzungo
gudaren oiur tristia,
baizik ipartxo jostalarien
ots bigun maitagarria;
munduan ez ta or darukazu
atsedena ta pakia,
naiko lanbide pasa dezu ta
soseguz egon zaitia.

6. Nola ez geran sentimentuaz
izan beñere zikoitzak,
zorion aundiz betetzen gaitu,
Felipe, zure oroitzak;
izen eder au gogoratuta
irtengo ditu bakoitzak
begietatik malkoak eta
biotz barrendik otoitzak.

Emeterio Arrese

Bertso auek, *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian argitaratu ziran lenengo, 1900'eko Apirillaren 30'an; eta *Euskal-Erria* aldizkarian urrengo, urte berean.

Felipe Dugiols, Donostia'n il zan, 1900-eko Apirillaren 28'an, bere adiskide Benigno Arrizabalaga'ren etxean.

Bigaramonean, gorputza Tolosa'ra, beraren jaioterrira, eramatea.

Il-kutxa, bi mikeletek eta bi gastadorek zeramaten, soldadu-talde batek guardia egiñez. Ondotik, adiskide eta agintari-mordoa. Pasa ziran kaleak, jendez beteak: Bengoetxea, Gipuzkoa'ko Plaza, Txurruka, *Avenida*, Easo, Zubieta eta Kontxa. Emen zalburdi batean sartu eta Tolosa aldera abiatu.

Eguardian iritxi. Apaizak, Udaletxea, musika-banda eta jendetza aundia, Arramele'ko zubian zai.

Parrokian elizkizuna egin ondoren, kanpo-santura mikeleteen bizkarretan, eta Arrizabalaga'tarren ill-obian sartu.

Bertso auen egillea ere, Emeterio Arrese, jende tartean izango zan; eta orduan erabili zituan sentimentuak, bertso auetan ixuri.

AU PENA... ILL DA DUGIOLS!!

1. Zein da munduan ez dakiyenik
Dugiols'en joan-etorriya,
nere iritziz, aberats, pobre,
nola aundi ta txikiya?
2. Irakurririk biar bezela
orren kondaira guztiya,
eziñ ukatu izandu dala
oso gizon gudariya.
3. Betiko joan da gure ondotik
nonbait ala biarrikan,
seme argiya eta bizkorra,
danok penaz utzirikan.
4. Nola geiago berriz naita're
ez dan ikusitzerikan,
maite degunak negarrez gaudez
orixen oroiturikan.

Kaietano Sánchez Irure
(*La Voz de Guipúzcoa*, 1900-IV-30)



ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).

30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa (1-I-1965)*. (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*. (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.

82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabea. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-sembleak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zampirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.

135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).(*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zabala*: Kuba'ko gerra.



AUSPOA
LIBURUTEGIA